



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko ekainaren 8a

57. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Legea, hirigintza eta etxebizitzaren arloan urtegiak hartzeko. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Legea, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen 100eko 0,7 arautzeko. Osoko Bilkurak onetsia (22. or.).

—Foru Lege proposamena, izaera sozialeko entitateentzat kontratu publikoak erreserbatzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (24. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da errespetatzen eta errespetarazi diezaien udalei liburutegi publikoak kudeatzeko autonomia. Osoko Bilkurak onetsia (25. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2008ko baldintza eta diru kopuru bera balia dezan etorkizunean ere, beharrezkoak diren eguneratzeekin, hiru urtetik beheko seme-alabak dituzten emakumezko langileendako laguntzetarako. Osoko Bilkurak onetsia (26. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pertsonen eta Familien Babesa Emateko Foru Programa bat susta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (26. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresetako lehiakortasunari eta hobekuntzari buruzko azterlan bat egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (27. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ingurumen laguntzak kudeatzeko prozeduren gabeziak konpon ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (28. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren jardueren juridikoak abian jar ditzan Carlos III Osasun Institutuari atxikia egonen den osasunaren arloko ikerketa institutu kreditatu bat sortze aldera. Osoko Bilkurak onetsia (28. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarearekin lankidetzan, Erosketa Sozial eta Solidarioaren Bulegoa. Osoko Bilkurak onetsia (29. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legearen erregelamenduak eta aginduak gara ditzan. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak onetsia (30. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte-enplegu babestua prestazio bermatutzat har dezan. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak bazter utzia (30. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da azaroaren 15eko 35/2007 Legea aldatzeko lege proiektu bat aurkez dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (31. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ADSL-banda zabala baldintzarik onenetan izan ahal izateko zenbait neurri har ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (31. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da paperik gabeko etorkinen aurkako sarekada selektiboen aurka azal dadin. Osoko Bilkurak bazter utzia (31. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Juan Ramón Corpas Mauleónen jardun politikoa gaitzes-ten du, eta premiatzen du Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilari gisa dagozkion eginkizunak bete ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (32. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxebizitza hutsen inbentario-erregistroa egin dezan. Mozioa Erretiratzea (32. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Larrialdietako Agentzia, Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioa eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa premiatzen dira Agoizko Udalak 2008ko irailaren 4an hartutako erabakiaren bidez eskatutako agiriak eta txostenak eman ditzaten. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeak bazter utzia (32. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Legea, hirigintza eta etxebizitzaren arloan urgentziazko neurriak hartzekoa.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2009ko maiatzaren 28an egindako Osoko Bilkuran, hirigintza eta etxebizitzaren arloan urgentziazko neurriak hartzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2009ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Hirigintza eta etxebizitzaren arloan urgentziazko neurriak hartzeko Foru Legea**

#### ZIOEN AZALPENA

##### 1

Azken urteotan, etxebizitzaren sektoreko jarduerak oso aldekoa izan du ingurunea, zehazki, Foru Komunitatearen kasuan ezaugarri hauekin: ekonomiaren jarduera bizia izan da, oro har, BPGren 100eko 3tik gorako igoerekin, eta langabeziaren datuak jaisten joan dira pixkanaka, ia enplegu osora iritsi arte. Bereziki aldekoa izan du eraikuntzaren sektorearen bilakaera, urteko hazkundeak 100eko 4tik goiti ibili baitira, eta langileen kontratazio maila oso altua. Egoera horren eragiletako batzuk dira interes tasa txikiak eta etxebizitza erosteko eskaera asko handitu izana -bai premiaren ondorioz bai inbertsioari begira-, eta horrekin batera bankuen sektoreak krediturako erraztasunak eman izana.

Engungo testuingurua arras desberdina da. Nafarroan ere, Espainiako gainerako erkidegoetan eta erregio eta herrialde garatuagoetan bezalaxe, eragin handia izan du finantza eta ekonomia krisiak. Espainiaren kasuan, higiezinaren sektorean gertatutako "geldialdiak" larriagotu egin du egoera.

Krisi ekonomikoak familien kontsumoa eta ekoizpen jarduera nabarmen apaltzea ekarri du

eta, azken hilabeteotan lan merkatura ere zabaldu denez, langabeen kopuruak ere gora egin du.

Nafarroa ez da egoera honetatik kanpo gelditu eta, Populazio Aktiboaren Inkestak emandako datuen arabera, 2008an langabeen kopuruari beste 12.100 pertsona gehitu zitzaizkion, eta 25.100eraino iritsi ziren. Nafarroako langabezia tasa, 100eko 8,12koa, Espainiako erregioetako artean txikiena izan zen 2008an, eta batez besteko nazionala, berriz, 100eko 13,91koa.

Nafarroako Gobernuak, egoeraz jabetuta, zenbait neurri abiarazi ditu, krisi ekonomikoaren egoerari berehalako erantzuna emateko xedearekin.

Esparru zabaleko lehen neurria "Nafarroa 2012" Plana izan da, Nafarroako Gobernuak 2008ko apirilaren 21ean onetsia, 2008ko apirilaren 14an Nafarroako Alderdi Sozialistarekin akordioa izenpetu ondoren. Plan horretan aurreikusirik dago 2008tik 2011ra bitarteko urteetan 4.508,9 milioi euroko inbertsioa egitea ekipamendu eta azpiegitura publikoetan. Nafarroa 2012 plana 2008ko maiatzaren 23an onetsi zuen Nafarroako Parlamentuak.

Era berean, Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 urteetarako neurriei buruzko azaroaren 6ko 18/2008 Foru Legea onestearekin lege izaerako arauzko lege pausoa eman zen Nafarroak pairatzen duen egoera ekonomiko kaltegarri honi aurre egiteko bidean.

Nafarroako ekonomia suspertzeko neurri garrantzitsu hauek hirigintza eta etxebizitza arloetako bestelako neurriekin osatu behar dira. Foru lege proiektu honetan jasotzen diren neurrien helburua da, batetik, herritarren eta enpresen beharrei erantzutea eta, bestetik, baliagarria izatea krisi ekonomikoak eraikuntzaren sektoreko enpleguan sortutako kalteak arindu eta, ahal dela, zuzentzeko.

## 2

Foru lege honek lau titulu ditu: Lehenbizikoak hirigintzaren arloko neurriak arautzen ditu; bigarrena, etxebizitzaren arlokoak; hirugarren tituluan zerga arloko zenbait neurri biltzen dira; laugarrenak, azkenik, "Nafarroako Etxebizitzak, S.A." sozietate publikoaren jarduna datorren hirurtekoan zuzenduko duten irizpideak finkatzen ditu. Legearen osagarri, lau xedapen gehigarri, hiru xedapen iragankor eta bi azken xedapen.

## 3

Hirigintza arloko neurrien xede nagusia da lurralde eta hirigintza antolamendurako tresnak onesteko tramitazio administratiboa arintzea, beharrezkoa baita eraikitzeke lurzoru egokia lehenbailehen jartzeko eragile ekonomikoen eskuera, eta halaber abian diren hirigintza garapenak unean-unean sustatzea. Horretarako, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen zenbait artikulua aldatzen dira, helburu hauek betetzeko asmoarekin:

– Planak erredaktatu eta tramitatzeko prozesuan zuzendaritza eginkizuna sendotzea, prozesu hori agenda bati jarraikiz eta lan metodo zalu eta partaidetzazkoaren arabera gauzatu dadin.

– Hirigintza antolamendurako tresnetan udalen autonomia eta erantzukizuna indartzea.

– Planeamenduko tresnen katalogoa erraztea eta prozedura hobeki definitzea.

Hirigintza arloko neurriei buruzko tituluan, aipagarria da beste modu batez erredaktatu dela 35/2002 Foru Legearen 53. artikulua, planeamendurako tresnetan aurreikusi beharreko ekipamendu eta zerbitzuetarako tokiei buruzko zehaztapenei buruzkoa; halatan, espazio mota horretarako nahitaez erreserbatu beharrekoa doitu eta murriztu egin da, gainerako autonomia erkidegoekin alderatuz gero gehiegizkoak direlako. Horrela, hiri lurzoruen eta urbanizagarrien erabilera areagotzea lortzen da, hiri espazioek ematen duten bizi kalitatea eta lurzoruen kontsumo arrazoizkoagoa bateratuz, kontuan hartuta lurzoru hori baliabide urria dela. Hortaz, aldaketak hiru xede ditu:

– Alde batetik, lagapenak egokitzea Eraikuntzaren Kode Teknikoa eraikin berriei aplikatzeak dakartzan inguruabar berrietara, eraikitako azalera berarekin azalera erabilgarria txikiagotzea eragiten baitu, eta beraz irabazizko eraikigarritasun erabilgarri osoa proportzioan murriztea, azalera eraikiaren eta azalera erabilgarriaren arteko erlazioa handiagoa bihurtzen baita.

– Bestetik, lurzoruen sektore desberdinen hirigintza diseinua malguagoa izatea lortu nahi da, ekipamendu publikoetarako lurzatiak erabilerak udalen behar errealekara egokitu ahal izateko, betiere berdeguneetarako eta espazio libre publikoetarako gutxieneko azalera bermatuz, beste autonomia erkidego batzuetan planteatzen denaren modukoa.

– Amaitzeko, gainerako autonomia erkidegoetako lagapenak aztertu eta 35/2002 Foru Legearen ezarritakoekin alderatuta, ondorioa da esijentzia askoz handiagoa dela Nafarroan, eta horrek betebeharrak handiagoak dakartzala sustatzaileentzat eta, beraz, urbanizazio eta lagapen karga handiagoak ere, etxebizitzaren amaierako prezioaren kaltean. Eta alderdi hori, esan bezala, okerrago egin da Eraikuntzaren Kode Teknikoa ezarri ondoren.

Nolanahi ere, Foru Komunitatea da, oraindik ere, autonomia erkidegoen artean bere hirigintza garapenetan espazio publiko eta ekipamenduetarako espazio gehien gordetzen duena.

Hirigintza prozesuak azkartzeko neurrien esparruan, 35/2002 Foru Legearen egungo 65. artikuluari laugarren idatz-zatia gehitu zaio. Arautze berriaren asmoa da Jarraipen Batzordearen izaera eta eginkizuna hobeki zehaztea, lidergoa eta autoantolaketarako gaitasuna emanaz, arautze berriaren ondorio nagusia hainbat alderdi batzorde horrek berak ebatzea izanen dela ulertuta; batzordean toki entitateen eta foru administrazioaren ordezkariak parte hartzen dute, eta beraz udalen plan orokorren prestaketa lanak dinamikoagoak izanen dira.

35/2002 Foru Legearen 70. artikuluari emandako testu berriaren xedea da lurraldea okupatzeko estrategiaren eta ereduaren eta alde aurreko itunaren izaera argitu eta tramitatzeko hobetzea, udal plan orokorraren testuinguruan, zeinaren parte baita, eta horrela egungo testuak dituen zehazgabetasunak zuzentzea, maiz atzerapenak eta zalantzak sortzen dituztelako planen tramitazioko prozesu tekniko eta administratiboan. Halaber, foru lege honetan nagusi den azkartze printzipioarekin bat, artikulua aldatuz udal plan orokorren tramitaziorako epeak ere laburtzen dira.

Hirigintza tresnen tramitazio eta onespen prozedura azkartzeko helburu hori bera da 35/2002 Foru Legearen 71., 74., 75. eta 79. artikuluek aurrerantzean izanen duten testu berria zuzendu dutenak: epeak laburtu, Nafarroako Gobernuaren esku-hartzea erraztu, toki entitateei eskumen gehiago ematea.

Bestetik, gaur egun, udal plana erredaktatzen den unetik bertan sartutako lurzoru sektoreak

garatu arteko denbora-tartea luzea denez, hirigintza jarduketaren onurak eta kargak banatzeko udal plan horretan aurreikusten diren koefizienteak zahartuta gelditzen dira, hasieran haiek zehazteko oinarritzat hartutako inguruabarrak, higiezin merkatukoak, aldatzearen ondorioz, eta horrexegatik distortsioak gertatzen dira garatze bidean den sektorearen edo unitatearen jabeen artean banaketa egitean.

150. artikulua a) letra berriaren bitartez, aukera ezartzen da banaketa horiek birzatiketa proiektua erredaktatzeko unean higiezin merkatuak duen egoera errearen arabera egiteko, udal planean finkatutako homogeneizazio koefizienteen aldaketa ahalbidetzeko. Horrela, koefizienteak arrazoiz egokitzeko bide ematen da, inolako aukerarik utzi gabe guztira birzaitu beharrekoaren aprobeixamendua handitu edo murrizteko, ez eta betetzen den planeamenduak ezarritako eraikigarritasuna ere.

Horrez gain, bi xedapen gehigarri gehitu zaizkio 35/2002 Foru Legeari.

Haietako lehenbizikoan, toki entitateei baimena ematen zaie planeamenduak toki ekipamenduetarako gordetako azaleraren zati bat erabiltzeko, bertan alokairuaren araubideko etxebizitza babestua eraikitzeke, ahal dela, azalera eskubidearen lagapenez baliatuz, betiere ziurtatzen bada azalera horrek toki entitatearen ondarekoa izaten jarraituko duela.

Bestalde, 35/2002 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarri berriaren ezartzen denez, etxebizitzetarako udalez gairik plan sektorial baten barruko jarduketak toki kontrolatutako salbuesteko aukera egonen da, Nafarroako Gobernuak interes orokorreko izaera deklaratu ondoren.

Azkenik, hirigintza arloko neurrien multzoari dagokionez, foru lege honek beste neurri bat ezartzen du xedapen iragankor gisa, dagoeneko urbanizatuta dauden sektoreetan, Administrazioari lagapenak behin eginda daudela eta lurzuaren jabeek bere gain hartu beharreko kargen banaketa juridikoki aldatzerik ez dagoenean, aukera izan dadin sektorearen eraikigarritasuna merkatuaren beharretara egokitzeko, 35/2002 Foru Legearen 53. artikulua berriak ezartzen dituen estandarrak aplikatu beharrik gabe eta kudeaketarako onetsitako tresnak eta kargen banaketa aldatu beharrik gabe horren ondorioz.

Halere, neurri hori behin-behinekoa da, eta eraikigarritasunaren gehikuntzak, gehienez ere, sektorerako edo unitaterako hasiera batean aurreikusitako eraikigarritasunaren 100eko 30ekoak izanen dira, are txikiagoa, 100eko 15ekoa, delako

sektorea edo unitatea Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeak indarra zuen bitartean onetsitako plan bati legokiokeen kasuan. Neurriak bermatzen du, halaber, eraikigarritasuna eta, horren ondorioz, etxebizitzaren kopurua handituz gero, gehikuntza horren 100eko 80 gutxienez etxebizitza babestuak egiteko erabiliko dela. 10/1994 Foru Legeak indarra zuen bitartean onetsitako planei dagozkien sektore edo unitateen kasuan, nahitaez etxebizitza babestuak eraikitzeke erabili beharreko portzentaje hori aldatutako sektorean edo unitatean aurreikusitakoa adinakoa izanen da, gutxienez.

#### 4

II. tituluak hiru kapitulu ditu, hiru neurri mota desberdin aurreikusten dituztenak.

II. tituluko I. kapituluak eraikuntzaren eta zaharberitzearen sektoreak suspertzea du helburu, partikularrei eta sustatzaileei eskainiko zaizkien dirulaguntza zuzenen bitartez. Hartara, nabarmen gehitzen dira etxebizitzak zaharberitzeko obra babestuetarako dirulaguntzen portzentajeak, bai eta dirulaguntzak jaso ditzaketan pertsonen gehieneko diru-sarrerak ere, gehiagok jaso ahal ditzaten laguntza horiek. Dirulaguntzaren xedea ere zabaldu da, orain arte dirulaguntzarik jaso ez zezaketan kontzeptuak sartuz.

Beste alde batetik, kapitulu honetan laguntza berriak ezarri dira, ohiko bizitoki diren etxebizitzetako sukaldeetan eta komunetan barneko erreformak egiteko, baldin eta etxebizitzek hamabi urte badituzte gutxienez, domotika instalatzeko edo etxeetako eraginkortasun energetikoa hobetzeko lanetarako.

Kapitulu honen azken neurria da etxebizitza babestuaren maizterrentzako laguntza bat, errenta ordaintzeko zailtasun ekonomikoak izanez gero, dirulaguntza jaso dezan, alokairua ordaintzeari uzten badio. Zeharka, sustatzailearentzako laguntza ere bada, zenbait kasutan ekar dezakeelako sustatzaileak alokairuaren prezioaren 100eko 75 jasotzea, maizterrak ordaintzen ez badu ere.

Titulu honen II. kapituluaren arautzen da Jabetzaren Erregistroan dagoeneko inskribatuta dauden birzaitze proiektuetan aurreikusita edo amaituta dauden etxebizitza libreak babestutzat kalifikatzeko aukera, alde batera utzita lurzuaren eta urbanizazioaren kostuak izan beharreko gehieneko oihartzunari dagokiona, Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legearen aurreikusitakoa. Era berean, aukera ematen da babes araubidea aldatzeko. Horrela, gaur egun eskaera faltagatik saldu

ez diren etxebizitzak ondasun eskuragarri bihurtzea lortuko da.

Azkenik, prezio mugatuko etxebizitza librea arautzen da. Etxebizitza libre berria da, eta haren prezioa legez ezarri eta aldatzen da kokaturik dagoen tokiaren arabera. Etxebizitza horrek bi onura ditu, bata mailegu kualifikatuez baliatu ahal izatea babestuentzat hitzartutako baldintzetan, eta bestea lege honetan aurreikusitako zerga arintzeak. Horrela lortzen den produktua erakargarria izan daiteke populazioaren zati batentzat, alegia etxebizitza babestuaren eskatzaileak ez direnentzat edo, eskatzaileak izanik ere, prezioa behar bezain egokituta egonez gero etxebizitza mota hau eskura dezaketentzat; horrek, gainera, erakuntzaren sektorea suspertzen lagundu dezake.

## 5

III. kapituluan partikularrentzako zuzeneko neurri batzuk jasotzen dira. Bide ematen da, horrela, babestutako etxebizitzari atxikitakoak etxebizitzatik bereizirik saldu edo errentan emateko. Horren xedea da jabeek diru-sarrerak lortu ahal izatea ondasun horietaz baliatuz (garajea edo trastelekua), behar izanez gero. Helburu hori bera du gelak alokatzeko aukera emateak.

Etxebizitza babestuak saltzerik egon ez denean hutsik gera ez daitezen, errentan ematea baimenduko da, haien kalifikazioa salerosketakoa izanik ere. Are gehiago, posible izanen da sustapen berean bi erabilerak, salerosketa eta alokairua, batera ematea. Etxebizitza babestua eskuratzeko legez ezarritako gutxieneko baldintzak (gutxieneko diru-sarrerak eta erroldatuta egotea) betetzetik salbuesteko aukera ere ezartzen da, zenbait herritan etxebizitza mota honen eskaera faltagatik etxebizitza babestuak adjudikatu gabe gera ez daitezen.

14. artikuluan, etxebizitza babestua salerosteko kontratua bertan behera uzteagatik ezar daitekeen penalizazio ekonomikoa murrizten da, etxebizitza mota hori erosi eta, beharrezkoa den finantzaketarik ez izateagatik edo ondoren gertatutako arrazoiengatik, etxebizitzari uko egin behar dioten eta aurreratutako diruaren zati bat, askotan handia, galtzen duten erosleen onerako.

Gizartean eragin handia izanen du 15. artikuluko neurriak, haren bitartez etxebizitza babestua errentan hartzen lagundu nahi zaielako arazo gehien dituzten sektoreei, beharrezkoa den abala lortzeko zailtasunak dituztenei hain zuzen.

Helburu horrekin berarekin ezarri da hurrengo artikuluko neurria, zeinaren bitartez errazten baita dagoeneko kalifikaturik dauden etxebizitza babes-tuen kasuan araubidea aldatzea, babes ofizialeko

etxebizitzak, araubide orokorrekoak, prezio tasatu-koak eta itundukoak izatetik babes ofizialeko etxebizitzak, araubide berezikoak izatera pasa daitezzen; hartara, maizterrek araubide horretako laguntzak jaso ahal izanen dituzte, hobeak baitira.

2008-2011 urteetarako Etxebizitzaren aldeko Gizarte Itunean taxutzen den alokairuko sistema publiko eraginkor bat sustatzen laguntzen duten neurriak; izan ere, itunak ezartzen du etxebizitzaren arloan eskuduna den departamentuak titular-tasun publikoko alokairu araubideko etxebizitzak eraikitzea sustatuko duela, Lurzoru Publikoaren Foru Bankuaren lagapenetatik heldu diren eta erabiltzeko moduan dauden lurzoruetan, harik eta 2008-2011 urteetarako sinaturiko Etxebizitzaren aldeko Gizarte Itunean aurreikusitako 2.000ko kopurura iritsi arte.

Azkenik, legeak jasotzen du gizartean antze-man den eskakizun bat, etxebizitza eskuratzeko baremo bakarrean penalizaziorik ez ezartzekoa legezko beharkizunak betetzen zituen etxebizitza kontu baten titularrak izanda, etxebizitza babestua adjudikatu ez eta zerga onurak galdu dituztenei; horren helburua da diru-sarreraren zati bat etxebizitza erosteko aurrezten duten eskatzaileak saritzea.

## 6

III. titulua zerga arloko neurriei buruzkoa da, Nafarroan etxebizitza eskuratzeko laguntzeko eta sektorearen suspertzeari bultzada emateko.

18. artikulua ohiko etxebizitzan egindako inbertsiogatik egiten den kenkaria handitzea ezartzen du, foru lege honek indarra hartzen duenetik 2011ko abenduaren 31ra, hori barne, erosten diren prezio libre mugatuko etxebizitzak erosteko. Etxebizitza mota horren lehenbiziko erosleentzat, ohiko etxebizitza erosteagatik aplikatzen den kenkaria egungoa baino bost puntu handiagoa izanen da. Horren bitartez prezio mugatuko etxebizitza librea eskuratzeko laguntza eman nahi da, eta etxebizitza mota hori eraiki eta sustatzea bultzatu ere.

19. artikulua xedea da abenduaren 24ko 22/2008 Foru Legean onetsi zen neurri bat osatu eta zabaltzea; izan ere, aipatutako neurriaren bidez, ohiko etxebizitza eskualdatzean berrinbertsiogatik salbuespena egiten den kasurako, ohiko etxebizitza desjabetzeko epea bi urtetik lau urtera zabaltzen da, eskualdaketa ohiko etxebizitza berri bat erosi eta zaharberritzeko diru-kopuruak erabili ondoren egiten bada. Arau horrekin, luzapenaren aplikazioa 2008an gertatutako kasuetara ere zabaltzen da.

20. artikulua ezartzen duenez, ohiko etxebizitza erosteko etxebizitza kontuko dirua erabili eta,

salbuespenezko arrazoiengatik, hura erosterik ez duen zergadunak ez du galduko kenkarirako esku-bidea baldin eta diru-kopuru horiek berriz sartzen baditu kontu horretan edo beste berri batean. Etxebizitza kontutik hartutako diru-kopurua saltzailari edo sustatzaileari eman zaiola eta etxebizitza kontuan itzuli edo sartu direla frogatu beharko da.

7

Amaitzeko, legearen IV. tituluko gaia "Nafarroako Etxebizitzak, S.A." da, sortu zenetik Nafarroako Gobernuarekin batera eraginkortasunez jardun duen sozietate publikoa, haren lurzorua eta etxebizitzaren arloko politika aurrera eramaten. Bertan ezartzen denez, hurrengo hiru urteetan VINSAK, batez ere, zaharberritzearen eta alokairuko sistema publikoaren arloetara bideratuko du bere lana, eta salerosketako etxebizitza babestuen merkatua beste eragile ekonomiko batzuen esku utziko du.

## I. TITULUA

### Hirigintza arloko urgentziako neurriak

**1. artikulua.** Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen aldaketa.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen aldaketa hauek egin dira:

Bat. 45. artikuluan 3. idatz-zatia aldatu eta 5. idatz-zatia gehitu da, testu honekin:

"3. Ekinbide partikularrak sustatutako plan eta proiektu sektorialak onesteko eskaerak ezetsi direla ulertuko da, baldin eta espresuki ebatzen ez badira, espediente osoa erregistroan sartzen denetik lau hilabete igarota.

5. Udalez gaindiko plan sektorialen zehaztaperen xehakatuaren aldaketak egiteko, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak onetsi beharko ditu, jendaurrean hilabetez egon eta ukitutako udalei entzutea eman ondoren, edo kasuan kasuko udalak, departamentu horrek baimentzen badu eta hark emandako jarraibideekin bat."

Bi. 53. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du:

"53. artikulua. Ekipamendu eta zerbitzuetarako eremuei buruzko zehaztaperak.

1. Planeamenduko tresna jakin batek zehaztuko du zein espazio erabiliko den komunitate-ekipamenduetarako, parke, lorategi eta espazio publiko berezietarako, hiriko ura arazteko instalazioetarako

eta populazioarentzat behar diren zerbitzuak bermatzeko behar diren gainerako azpiegituretarako.

2. Ekipamendu eta azpiegitura kategorია eta mota bakoitzetarako, planeamenduak kalkulatu dituzten populazio osoarentzat behar diren erreserbak, antolamenduaren gehieneko ahalmenean oinarrituz, elementu bakoitzaren hierarkia edo zerbitzu-mailaren arabera bereiziz, eta kontsideratuz artikulaturik daudela zerbitzu publikoetan dagokien sarean. Bereizketa hori zehaztuko da bakoitzaren kalifikazioan, sistema orokorrak diren edo zerbitzu-maila tokikoa duten bestelakoak diren.

3. Artikulu honetan ezartzen diren zehaztaperak gutxienezkoak dira, baina udal planeamenduak handitu ahalko ditu, udalerriri osorako edo parte baterako, ikusten diren behar kolektiboak erantzuteko.

4. Planeamenduak zehaztu beharko du udalerriri bakoitzeko ekipamendu publikoaren sarea, parke, lorategi, berdegune, kirol eremu eta josteta guneak osatua, udalerriko hiri-sektoreetan eta urbanizagarrietan behar bezala banaturik, zerbitzuaren eta osagarritasunaren arteko orekarik handiena bermatzeko. Ekipamendu publikoaren sare hori osatzen duten lurrek jabari eta erabilera publikoak izan beharko dute, deusetan ukatu gabe partikularrekin finkatzen diren formula hitzartuak, haien mantentze-lan eta kontserbaziorako. Ekipamendu mota honetarako gutxienezko moduluak honako hauek izanen dira:

a) Sistema orokor gisa, espazio libre publikoetarako erreserbak zehaztu beharko dira, eta azalera bateratu erabilgarria ez da izanen biztanleko bost metro koadrokoa edo etxebizitzetarako eraikitako 100 metro koadroko hamabost metro koadrokoa baino txikiagoa, hiri-lurzoruen eta sektoretarako lurzoru urbanizagarrien guztirako gehieneko ahalmenaren arabera neurturik. 500 biztanlera iristen ez diren populazio guneek ez dute beharkizun hau bete beharko, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak hala erabakita.

b) Lurzoru urbanizagarria eta/edo etxebizitzetarako hiri-lurzoru finkatu gabea duten sektoreetan, toki-ekipamendu gisa eta, beraz, bere barrenean sartzen diren sistema orokorreko elementuak edozein direla ere, zehaztu beharko dira ekipamendu publikoetarako lur erreserbak, eta haien azalera ez da izanen 50 metro koadrokoa baino txikiagoa etxebizitzetarako eraikitako 115 metro koadroko. Berdeguneetarako eta espazio libreetarako baizik erabiliko ez den erreserba horren azalera ez da inola ere izanen 20 metro koadrokoa baino txikiagoa eraikitako 100 metro koadroko, ez eta sektorearen azalera osoaren 100eko 10ekoa baino txikiagoa.

goa, azalera horretan kontuan hartu gabe bertan sartutako sistema orokorrak. Lagapen horiek txikiagoak izan ahalko dira 500 biztanletik beherako populazioguneetan, horretarako arrazoiak emanez. Udal plan orokorra onetsi ondoren egin daitezkeen lurzoru-hedapenak erreserben gutxieneko proportzio horri eutsi beharko diote.

c) Industrialdeetan edo zerbitzu-poligonoetan, sektorearen ehuneko 10 gutxienez berdegune handietarako erabiliko da. Berdegune horiek antolamendu osoarekin bat datozela kokatuko dira, eta ahal dela ez dira jarriko bazter-lurretan edo sobran gelditutako eremuetan.

Sektorizatutako lurzoru urbanizagarrian eta/edo industriarako edo zerbitzuetarako erabilera hiri-lurzoru finkatu gabeen, erabilera anitzeko ekipamendurako azalera, antolatutako azalera guztiaren 100eko 4koa izanen da.

5. Lurzoru urbanizagarri sektorizatuan eta/edo etxebizitzetarako hiri-lurzoru finkatu gabeen, ibilgailuentzako aparkalekuen aurreikuspena bi tokikoa izanen da, gutxienez, sestra gaineko edozein erabileratarako eraikinaren ehun metro koadroko, garajeetarako tokia kenduta; erabilera publikoko espazioetan, aldiz, gutxienez 0,7 tokikoa izanen da edozein erabileratarako ehun metro koadroko. Sektore edo unitatearen testuingurua eta hirigintza tipologia kontuan hartuta, eta batez ere inguruan garraio publikoak duen egoera eta perspektibak, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak erabaki dezake espazio publikoan ezarri beharreko toki kopuru zehatza, arestian ezarritakoa baino handiagoa edo txikiagoa. Horretarako, ezinbesteko baldintza izanen da mugikortasunari buruzko azterlan bat egitea, administrazio eskudunak ezarritako irizpideen arabera.

Lurzoru urbanizagarri sektorizatuan eta/edo industriarako edo zerbitzuetarako hiri-lurzoru finkatu gabeen, ibilgailuentzako aparkalekuen aurreikuspena, lurzatiaren tipologiaren eta bertan kokatu gogo diren jardueren arabera izanen da. Merkataritza saltoki handien kasuan, tokiak zehazteko orduan kontuan hartu beharko da bertan biltzen diren mota desberdineko jardueren funtzionamendu konbinatua, aldi bereko erabilera bere unerik gorenean dagoenean. Nafarroako Gobernuak, foru dekretu bidez, aparkalekuetarako modulu orokorrak ezarri ahalko ditu, kontuan harturik industria-ko edo zerbitzuetako tipologia desberdinak eta hirigintzako antolamenduan jasotzen diren erabilerak zehatzek sortzen dituzten beharrak.

6. Hezkuntza edo osasun ekipamendurako azalera kasu bakoitzean zehaztuko da, Foru Komunitateko administrazioaren hezkuntza edo

osasun politikaren beharren arabera, dagokien organoek egindako txostenaren bidez, udal plan orokorraren behin-behineko onespina baino lehen.

7. Lurzoru urbanizagarriko sektoreetan, nagusiki etxebizitzetarako erabiltzen direnetan, planeamenduak lur erreserba bat zehaztu beharko du udalez gaindiko ekipamenduaren izaerarekin; erreserba horrek 3 metro koadroko azalera izan beharko du, gutxienez, etxebizitzetarako eraikitako 100 metro koadroko, orube izaerakoa; erreserba hori titularitate publikoko etxebizitzak eraikitzeko edo bestelako etxebizitza-erabileretarako kalifikatuko da. Lur horiei esleituko zaie eraikigarritasuna ez da izanen, guztira, sektoreak osotara duen eraikigarritasunaren 100eko 7tik beherakoa. Lurzati horietan, eraikinen hirigintza baldintzak inguruko lurzatiakoei dituzten antzekoak izan beharko dira. Lurzati horietako eraikigarritasuna ez da kontuan hartuko udalari egin beharreko aprobetxamendu lagapena kalkulatzeko, eta ez da gainerakoarekin batuko sektorearen gehieneko aprobetxamendua kalkulatzeko; horrez gain, ez du ekipamendu publikoetarako erreserbarik sortuko.

Idatz-zati honetan aurreikusitako erreserbaren ondorioz eratzen den lurzatiaren azalera 300 metro koadrokoa edo txikiagoa baldin bada, kokatuta dagoen udalerraren ondarean sartuko da, eta ekipamendu publikoetarako erabili beharko du udal horrek.

8. 92. artikulua 1. idatz-zatiko c) letraren bigarren paragrafoak aipatzen duen hiri-lurzoru finkatu gabeen, udal plan orokorrak edo, kasua bada, garapenaren planeamenduak, finkatuko ditu erreserben aurreikuspenak, artikulua honetan adierazitakoetatik hurbil egon daitezzen.

Hiru. 56. artikulua izena eta 1. idatz-zatia aldatu dira, eta testu hau izanen dute:

“56. artikulua. Udal plan orokorra.

1. Udal plan orokorra honako hauek osatuko dute:

- a) Lurraldea okupatzeko estrategia eta ereduak.
- b) Udaleko Hirigintza plana.”

Lau. 62. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du:

“62. artikulua. Xehetasun azterlanak.

1. Xehetasun azterlanak hirigintza planeamenduko tresnak dira, eta beren xede bakarra da antolamendu xehakatu zehaztuen hauek ezarri, aldatu edo berregokitzea:



a) Lerrokadura eta sestra lerroak seinalatzea, sistema orokorren barrenean sartzen diren bide elementuetakoak izan ezik.

b) Eraikinen bolumenen eta altueren antolamendua eta osaera, udal plan orokorrean finkatutako baldintzen arabera, bai eta etxebizitzaren eta eraikinen morfologia eta tipologia.

c) Fatxaden antolamendua.

2. Udal plan orokor batek, plan partzial batek edo indarrean dagoen plan bereziren batek antolamendu xehakaturik lehendik ezarrita daukaten espazioen gainean bakarrik formulatu ahalko dira xehetasun azterlanak. Beren xedearen ondoriozko zehaztapenak kenduta, xehetasun azterlanek ezin izanen dute indarra duten planeamendu-tresnen antolamendu xehakaturik zehaztapenik aldatu eta, bereziki, ezin izanen dute beren esparruko lurri dagokien eredu-aprobetxamendua edo batez bestekoa handitu. Halaber, ezin izanen dituzte inola ere aldatu mugakide dituzten finketako hirigintza baldintzak.

3. Xehetasun azterlanek beren xede diren zehaztapenak zehatz-mehatz justifikatu eta ezartzeko behar diren dokumentuak izanen dituzte.

Bost. 65. artikulua 3. idatz-zatikoko bigarren paragrafoa kendu da eta 4.a gehitu, testu honekin:

“4. Horretarako, kasuan kasuko udalaren eta Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua artean planaren jarraipen batzorde bat eratuko da, harik eta plan hori behin betiko onesten den arte. Batzorderako arau gutxienekoak hauek dira:

a) Toki entitateak bertan izanen dituen ordezkarrien kopurua 3tik 5era bitartekoa izanen da, eta Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren ordezkariera 2tik 3ra bitartekoa.

b) Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren ordezkarietako bat izanen da batzordeko burua.

c) Planaren jarraipen batzordeak eginkizun hauek izanen ditu:

Udal plan orokorra egin eta tramitatzeko prozesurako agenda ezarri eta kontrolatzea.

– Plana erredaktatzeko prozesuaren alderdi metodologikoak, dokumentalak eta partaidetza sozialekoak zuzendu eta gainbegiratzea.

d) Bere jardunerako barne araubidea ezarri ahalko du.

e) Bere jarduera dokumentatuko du.”

Sei. 70. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du:

“70. artikulua. Mila biztanletik goitiko udalerrientzako udal plan orokorraren tramitazioa.

1. Mila biztanletik goitiko udalerriek lurraldea okupatzeko estrategia eta eredia erredaktatu eta tramitatu beharko dute lehenbizi.

2. Udalak prozesu bat irekiko du, lurraldea okupatzeko estrategia eta eredia gizartearen parte hartzearekin aztertzeko; horren barrenean, jendaurrean jarriko da hilabetean gutxienez, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitateko egunkarietan iragarki bat argitaratuz, herritarrek beraien iradokizunak aurkez ditzaten.

3. Udalak, iradokizunak kontuan hartuta, lurraldea okupatzeko estrategia eta eredia onetsi eta Nafarroako Gobernura igorriko du, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuarekin ituntzeko; departamentu horrek Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu guztietara eta kasuan kasuko erregio mailako erakunde publikoetara igorriko du, udal plan orokorrean eragina duten politika sektorialeiei buruzko txostena egin dadin.

4. Departamentuko erregistroan sartu zenetik bi hilabetez gehieneko epea iraganik, departamentuak lurraldea okupatzeko estrategia eta eredia, jasotako txostenak eta itunerako proposamena Lurraldearen Antolamenduko Batzordera igorriko ditu, bidezkoa bada onetsi ditzan; itun proposamena bi administrazioetako ordezkariek izenpetutako dokumentu bat da, definitutako lurralde eredu hori, hirigintzako udal planaren fasean garatu behar dena, osatzen duten elementuak zehazten dituena. Lurraldea okupatzeko estrategia eta eredia eta ituna hirigintzako udal plana tramitatzeko den bitartean egokituz joan ahal izanen dira, jendaurrean egoteko prozesuaren eta txosten sektorialen arabera.

5. Lurraldearen Antolamenduko Batzordeak Lurraldea okupatzeko estrategia eta eredia eta ituna onetsi ondoren, hasiera emanen zaio hirigintzako udal plana erredaktatzeari, jarraipen batzordearen zuzendaritzapean.

6. Udal plan orokorraren prestaketa amaituta, udalak hasierako onespina emanen dio eta jendaurrean jarriko du hilabetean gutxienez, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitateko egunkarietan iragarki bat argitaratuz.

7. Hasiera batez onetsitako plana ukitutako kontzejuen eta udala sartua dagoen mankomuni-

tatearen esku utziko da, txostena egin dezaten, planeamenduak ukitzen dituen udal zerbitzu mankomunatupei buruz

8. Halaber, eta jendaurreko aldiarekin batera, hasiera batez onetsitako plana igorriko da Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura, hark txostena egin dezan Nafarroako Gobernu departamentuen eskumenetako gaiez, eta bereziki departamentu hauenetakoei buruz:

- a) Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua.
- b) Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua.
- c) Hezkuntza Departamentua.
- c) Osasun Departamentua.
- e) Kultura eta Turismo Departamentua.
- f) Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua.

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak txosten orokor bat egingen du Nafarroako Gobernu departamentuetako inguruabar sektorialak bilduta. Txostena luzatzeko epea bi hilabetekoa izanen da, eskaera Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan aurkezten denetik hasita, eta epe hori iragaten bada udalak txostena jaso gabe, tramitea egintzat joko da.

9. Udalak, informazioa eta, halakorik badago, entzunaldiaren tramitea ikusirik, behin-behineko onetsiko du, bidezko diren aldaketekin. Aldaketa horiek hasieran onetsitako planaren Lurraldea okupatzeko estrategia eta eredu funtsezko aldaketa ekartzen badute, plana berriz jarriko da jendaurrean, hilabetean, behin-behineko onespina eman baino lehen.

10. Plana behin-behineko onesten delarik, espediente osoa bidaliko zaio Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari, behin betiko onespina eman diezaien.

11. Planaren espedientea aurkeztu ondoren, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, agiriak falta direla edo akats teknikoak daudela ohartuz gero, horiek zuzentzeko eskatuko dio udalari.

12. Espedientea osatzen delarik, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak plana aztertuko du, ikusiz indarrean dagoen legeriari, itunari eta lurraldearen antolamendurako tresnen zehaztapenei egokitzen zaien, eta udaletatik eskainitako irtenbideak nola koordinatzen diren komunikazio bide eta azpiegiturei

buruzko politikekin, etxebizitza, ingurumen, mendi, ureztalur eta ondare historikoaren gaine-koekin, eta Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenekoak diren bestelako politika sektorialekin.

13. Aurreko idatz-zatian ezarritakoari jarraikiz, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak honako ebazpen hauetako bat emanen du:

a) Behin betiko onespina emanen du, baldin eta Plana egokitzen bazaio aurreko idatz-zatian ezarritakoari.

a) Behin betiko onespina ukatuko du, Planean sartzen badira aurreko idatz-zatian ezarritakoaren kontra nabarmen jotzen duten zehaztapenak.

c) Ukitutako udalari eskatuko dio Plana alda dezan, baldin eta bere zehaztapenetakoren bat ez bazaio egokitzen aurreko idatz-zatian ezarritakoari. Behar diren aldaketak egin ondotik, udalak Plana aurkeztuko dio Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako kontseilariari, behin betiko onespina eman dakion.

14. Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako kontseilariak bere ebazpenak jakinaraziko dizkio ukitutako udalari, espediente osoa Foru Komunitateko Administrazioaren erregistroan sartzen denetik hasi eta hiru hilabeteko apean. Epe hori igarotzen bada udalari inolako ebazpenik jakinarazi gabe, udal plan orokorra onetsita dagoela ulertuko da.”

Zazpi. 71. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du:

“71. artikulua. Mila biztanle edo gutxiagoko udalerrientzako udal plan orokorraren tramitazioa.

1. Mila biztanle edo gutxiagoko udalerrientzako udal plan orokorra tramitatzeko, 70. artikuluan finkatutako arauari jarraituko zaie, puntu hauetan izan ezik:

a) Udalak udal hirigintza planaren hasierako onespina egitean hasiko da tramitazioa, zuzenean.

b) Udal plan orokorrak ezarriko du idatziz eta grafikoekin, dokumentu berezietan, planaren hirigintza zehaztapenak gidatuko dituen Lurraldea okupatzeko estrategia eta eredu.

2. Aurreko puntuan ezarritakoa gorabehera, udalerriaren lurralde garrantziaren arabera, Lurraldearen Antolamendu Planak 70. artikulua araberako tramitazio osoa ezarri ahalko du bere udal plan orokorrerako.”

Zortzi. 74. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du:

“74. artikulua. Plan partzialen eta garapeneko plan berezien tramitazioa.

1. Udal plan orokorretako zehaztapenak garatzen dituzten plan partzialen eta plan berezien tramitazioan, arau hauek bete beharko dira:

a) Kasuan kasuko plana formulatu duen udal berak emanen dio hasierako onespina, gero jendaurrean jartzeko, gutxienez ere hilabeteko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialeko iragarkiaren bidez eta Nafarroan editatzen diren egunkarietan, bederen, argitaratuta.

Hasierako onespeneren gainean erabakia hartzeko epea, edo ukatzeko, ekinbide partikularreko planen kasuan, bi hilabetekoa izanen da, dokumentazio osoa udal erregistroan aurkezten denetik hasita. Epe hori iragaten bada ebazpenik eman gabe, plan partziala edo berezia hasiera batez onetsita dagoela ulertuko da.” Hasierako onspenetik hasi eta hilabeteko epean, udalak igorriko du aurreko paragrafoan aipatzen den iragarkia, baina jarduketa hori, bestela, planeamenduko tresnaren sustatzaileak berak zuzenean egin dezake.

Dena den, antolamendu-proposamena aurkeztu den kasuetan, 66. artikuluko 3. idatz-zatiak xedatuaren arabera jokatu da.

b) Jendaurreko epearen emaitza ikusita, udalak behin betikoz onetsiko du, behar diren aldaketekin. Aldaketa horiek hasieran onetsitako planari funtsezko aldaketa eragiten badiote, jendaurreko beste aldi bat hasiko da, behin betiko onespina eman baino lehen.

c) Plana behin betikoz onesteko gehieneko epea bi hilabetekoa izanen da, jendaurreko epea amaitzen denetik hasita. Epe hori iragaten bada ebazpenik eman gabe, plan partziala edo berezia onetsita dagoela ulertuko da. Hala gertatzen denean, sustatzaileak zuzenean bete ahalko ditu plana argitaratu eta jakinarazteko beharkizunak, foru lege honen 81.1 artikulua aipatzen dituenak.

2. Proposatutako plan partzial edo bereziak txosten bat beharko du, toki administrazio jarduleraren edo foru lege honen 16. eta 18.2 artikuluetan aurreikusitako organoetako bateko teknikari batek emana, udal plan orokorrekarekin eta gainerako antolamendu juridikoarekin bat datorrela egiaztatuko duena.

Halakorik ez badago, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak txostena eskatu ahal izanen du behin betiko onespina eman aurretik.

3. Udalak Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari igorri beharko dio behin betiko onetsitako plan partziala edo plan berezia, txostenekin batera, onespina ematen denetik 10 eguneko epean gehienez ere, haren gaineko kontrola egiteko, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean xedatutakoari jarraikiz.”

Bederatzi. 75. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du:

“75. artikulua. Aparteko plan berezien tramitazioa.

Udal plan orokorraren zehaztapenak garatzen ez dituzten plan bereziak foru lege honen 72. artikuluan ezarritako arauekin bat tramitatuko dira.”

Hamar. 79. artikuluan 3. eta 4. idatz-zatiak aldatu dira, eta testu hau izanen dute:

“3. Udal plan orokorretako antolamendu xehakutako zehaztapenen aldaketa 74. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera egingen da, ekinbide publiko edo pribatuari jarraikiz, deusetan ukatu gabe plan partzial eta bereziek antolamendu xehakutuan egiten dituzten aldaketak.

4. Sektorizazio planetako, plan partzial eta berezietako eta xehetasun azterlanetako zehaztapenen aldaketa beren onespenerako ezarritako prozedura beraren arabera egingen da.”

Hamaika. 150. artikulua a) letra aldatu da, eta testu hau izanen du:

“a) Jabeen eskubidea bakoitzaren lurzatie azaleraren proportzioan aterako da, bakoitzari dagokion batez besteko edo eredu-aprobetxamenduen arabera.

Birzatzeko proiektuak eredu-aprobetxamendua kalkulatzeko erabilitako homogeneizazio koefizienteen egokitasun edo desegokitasunari buruzko azterlan bat jasoko du, birzatzeko proiektua tramitatzerakoan onuren eta kargen banaketa parekatua dela bermatze aldera.

Azterlan horrekin egiaztatzen bada balioen parekotasunak indarra galdu duela, birzatzeko proiektuak berregokitu ahalko ditu, horretarako arazoak emanez, betiere birzatzetaren xede den aprobetxamendu osoa handitu edo gutxitu gabe, ez eta betetzen ari den planeamendua ezarritako eraiikgarritasuna ere.

Hamabi. Lurraldearen Antolamenduari eta Hiri-gintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeari zortzigarren xedapen gehigarria gehitu zaio, testu honekin:

“Zortzigarren xedapen gehigarria. Planeamenduaren arabera ekipamenduetarako den azalera.

Planeamenduak toki ekipamenduetarako gor-detako azaleraren 100eko 5 erabili ahal izanen dute toki entitateek, gehienez ere, horretarako arrazoiak emanez, bertan alokairuaren araubideko etxebizitza babestuak eraikitzeke, foru lege honen 236. artikuluan eta harekin lotutakoetan aurreikusitako azalera eskubidearen lagapenez baliatuz, edo zuzenbidean onartutako beste edozein bide erabiliz, betiere ziurtatzen bada azalera horrek toki entitatearen ondarekoa izaten jarraituko duela.”

Hamahiru. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeari bederatzigarren xedapen gehigarria gehitu zaio, testu honekin:

“Bederatzigarren xedapen gehigarria. Nagusiki etxebizitzetarako diren erabilerak ezartzeko udalez gaindiko plan sektorial batzuetarako interes orokorraren deklarazioa.

1. Foru lege honen 47. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, nagusiki etxebizitzetarako erabilerak ezartzeko xedea duen plan bat Nafarroako Gobernuak udalez gaindiko plan sektorial deklaratzearan, haren tramitazio, onespene eta exekuziorako behar diren obrak eta lanak, bai eta ekartzen dituen jarduketak ere interes orokorrekoak direla deklaratu ahal izanen du. Deklarazio hori planaren behin betiko onespenearekin batera ere egin ahal izanen da.

2. Xedapen gehigarri honetan aurreikusten den interes orokorraren deklarazioan etxebizitza

babestuak egiteko lanak ere sartu ahalko dira. Ondorio horiekin, behin-behineko kalifikazioa eman aurretik, etxebizitzaren arloko departamentu eskudunak proiektatuko obrei buruzko txosten ez-lotesle bat eskatuko dio ukitutako toki entitateari, 30 egun naturaleko epean gehienez igorri beharrekoa.

3. Interes orokorreko deklarazioa udalez gaindiko proiektu sektorial deklaratu edo plana behin betiko onetsi ondoren egin ahal izanen da, Nafarroako Gobernuaren Erabakiaren bidez.”

Hamalau. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 57., 58. eta 72. artikulua kendu egin dira.

## II. TITULUA

### Etxebizitzaren arloko urgentziazko neurriak

#### I. KAPITULUA

##### Aldi bateko indarra izanen duten laguntzak

##### 1. sekzioa

##### Etxebizitza zaharberritzeko dirulaguntzak

**2. artikulua.** Etxebizitza zaharberritzeko dirulaguntzak.

1. Zaharberritzearen sustatzaile erabiltzaileei ematen zaizkien dirulaguntzak, Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak eta etxebizitzetarako eraikinen sustapena arautzen dituen urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuan jasotakoak, honakoak izanen dira:

Familiako diru-sarrera ponderatuak IPREM halakoak	Diru-laguntzaren portzentajea
2,5 halako, gehienez	% 25, eraikinak 50 urte baino gutxiago eta 12 urte baino gehiago baldin baditu. % 30, eraikinak 50 urte edo gehiago baldin baditu. % 40, lehentasunez zaharberritu beharreko eremuetan, edo arkitektura-oztopoak kendu eta mugimenezko minusbaliotasuna duten pertsonen onurarako denean, edo eskatzaile batek edo haren ezkontideak 65 urte edo gehiago dituztenean. % 50, lehentasunez zaharberritu beharreko eremuetan esku-hartze orokorreko proiektuak egiten direnean.
2,5 halakotik 5,5 halakora bitarte	% 20, eraikinak 50 urte baino gutxiago eta 12 urte baino gehiago baldin baditu. % 25, eraikinak 50 urte edo gehiago baldin baditu. % 40, lehentasunez zaharberritu beharreko eremuetan. % 50, lehentasunez zaharberritu beharreko eremuetan esku-hartze orokorreko proiektuak egiten direnean.
5,5 halakotik 7,5 halakora bitarte	% 16, eraikinak 50 urte baino gutxiago eta 12 urte baino gehiago baldin baditu. % 20, eraikinak 50 urte edo gehiago baldin baditu. % 40, lehentasunez zaharberritu beharreko eremuetan. % 40, lehentasunez zaharberritu beharreko eremuetan esku-hartze orokorreko proiektuak egiten direnean.

2. Aurreko portzentaje horiei 3 puntu gehituko zaizkie kategoriatan orokorreko familia ugarien kasuan, eta 6 puntu kategoriatan bereziko kasuan.

“3. Artikulu honen ondorioetarako, diruz lagundu daitezkeen kontzeptuen artean sartuko dira domotika instalatzea, zeina ezgaitasunen bat duten pertsonen egokitu egiten baitzaie teknikaren nahiz zentzumenen aldetik, barruko ateak edo zoladurak edo zoruak aldatu edo ordezteak, bai eta sukaldia eta bainugelak berritzeko lanak ere, ekintza hauetakoren bat behar dutenean: igeltserotza, iturgintza, elektrizitatea, eskaiola eta zoladuren edo/eta estalkien aldatzea, bai eta komunak eta bainuontziak, dutxak eta instalazio finkoa eskatzen duten sukaldeko nahiz komuneko altzariak aldatzea. Etxetresna elektrikoak erosteko edo konpontzeko nahiz aurreko zerrendan jaso ez diren bestelako elementu eta jardueretarako, berriz, ez da dirulaguntzarik emanen.”

**3. artikulua.** Etxebizitzak barrutik berritzeko dirulaguntza berezia.

Etxebizitzaren arloko jarduketara babesgarriak eta etxebizitzetarako eraikinen sustapena arautzen dituen urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuari 87.bis artikulua gehitu zaio, testu honekin:

“87. bis artikulua. Etxebizitzak barrutik berritzeko dirulaguntza berezia.

1. Nafarroako Gobernuak diruz lagunduko ditu bizilagunen ohiko bizitoki iraunkorra den edo izan behar den etxeko sukaldia eta bainugelak berritu eta barneko zurajea eta zoladurak edo zoruak ordezteko lanak, betiere aurreko artikuluetan aurreikusitakoaren arabera etxebizitza zaharbertzeko obra baten parte ez direnean.

2. Aurrekontu babesgarriak, foru dekretu honen 78.2 artikuluan ezarritako mugak izan gabe, 4000 euroko zenbatekoa izanen du gutxienez, eta lan hauek hartuko ditu barne: barruko ateak edo zoladurak edo zoruak aldatu edo ordezteak, bai eta sukaldia eta bainugelak berritzeko lanak ere, ekintza hauetakoren bat behar dutenean: igeltserotza, iturgintza, elektrizitatea, eskaiola eta zoladuren edo/eta estalkien aldatzea, bai eta komunak eta bainuontziak/dutxak eta instalazio finkoa eskatzen duten sukaldeko nahiz komuneko altzariak aldatzea. Etxetresna elektrikoak erosteko edo konpontzeko nahiz aurreko zerrendan jaso ez diren bestelako elementu eta jardueretarako, berriz, ez da dirulaguntzarik emanen.

3. Dirulaguntza aurrekontu babesgarriaren 100eko 20koa izanen da, gehienez ere 3.000 euro etxebizitza bakoitzeko.

4. Dirulaguntza hauek emateko prozedura laburtua ezarriko da, eta ordainketa egiten da lanak egin direla frogatzen duten agiriak ekarri ondoren, gehienez ere dirulaguntza eman zenetik urtebeteko epean; agiri horien artean egonen dira, nahitaez, etxebizitzaren jabearen erantzukizuneko aitortzea, egindako lanak dirulaguntza lortzeko aurkeztu zen aurrekontuarekin bat datozeela adierazten duena, eta lanaren exekuzioari dagozkion faktura guztiak.

5. Nafarroako Gobernuak ikuskapenak egiten ditu, tramitatutako espediente guztietatik batzuk lagin gisa hartuta, egindako lanak eta dirulaguntzak bat datozeela egiaztatzeko. Horretarako, laguntza hauek jasotzen dituzten etxejabeek etxebizitzan sartzen utzi beharko diete lan hori egiteko gaitasun ofiziala izanen duten ikuskatzaileei.

6. Artikulu honetan aurreikusitako dirulaguntza eman ondoren, onuradunak ezin izanen ditu berriz eskatu laguntza hauek, eta ezin izanen da honelako dirulaguntzarik eskatu berriz haien xede izandako etxebizitza batean egin beharreko lanetarako.”

## 2. sekzioa

### **Eraikin eta etxebizitzetako eraginkortasun energetikorako eta domotikarako laguntza**

**4. artikulua.** Etxebizitza eraginkortasun energetikoarekin zaharbertzeko dirulaguntza.

Foru lege honen 2. artikuluko 1. idatz-zatian aurreikusitako dirulaguntzen portzentajeak 5 puntu gehituko dira obretan eraginkortasun energetikoaren hobekuntzak aurreikusita daudenean, eta kasuan kasuko kalifikazioan halakotzat hartuta.

**5. artikulua.** Ingurakari termikoa berritzea etxebizitzetako eraikinetan.

Isolamendua handitzeko xedearekin, eraikinetako ingurakari termikoa hobetzeko lanetarako zaharbertze babestuko espedienteak sustatzen dituzten etxejabeen elkarrekin obra horien aurrekontu babesgarriaren 100eko 40ko dirulaguntza jasoko dute, etxebizitza bakoitzeko 5.000 euroko gehienez ere.

Ondorio horietarako, eraikin baten ingurakari termikoa kanpoko giroak edo lurra edo berokuntzarik ez duten beste lokal batzuek ukitzen dituzten eraikuntza elementu guztiek osatzen dutela ulertzen da. Hauek dira aipatutako elementuak: kanpoko nahiz barruko fatxadak, teilatua, estalpe eta hegalkinen gaineko forjatuak eta, halakorik badago, lurra edo berokuntzarik ez duten lokalek –garajeak edo biltegiak, kasu- ukitzen dituzten forjatuak eta paretak, hori guztia aplikatzeko den araudi teknikoarekin bat.

**6. artikulua.** Etxebizitza babestuen sustapenean kalifikazio energetikoa lortzeko dirulaguntza.

1. Etxebizitza babestuen sustatzaileek, haien proiektuek A, B edo C motako kalifikazio energetikoa (eraikin berrien eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarritzko prozedura onesten duen urtarrilaren 19ko 47/2007 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera) lortzen badute, dirulaguntza hauek jasoko dituzte:

A mailako kalifikazio energetikoa: 40 euro etxebizitzaren metro koadro erabilgarri bakoitzeko.

B mailako kalifikazio energetikoa: 30 euro etxebizitzaren metro koadro erabilgarri bakoitzeko.

C mailako kalifikazio energetikoa: 20 euro etxebizitzaren metro koadro erabilgarri bakoitzeko.

2. Dirulaguntza etxebizitzaren behin betiko kalifikazioa lortu ondoren ordainduko da, baina sustatzaileak zenbatekoaren erdia, gehienez ere, jaso ahal izanen du behin-behineko kalifikazioa lortu ondoren, eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoa estaltzeko adinako abala aurkezten badu.

**7. artikulua.** Domotika instalatzeko dirulaguntza.

1. Etxebizitzaren sustatzaileek, proiektuetan domotika instalazioak aurreikusten badituzte etxebizitza berrietan, instalazioaren 100eko 40ko dirulaguntza jasoko dute, gehienez ere 1.500 euro etxebizitza bakoitzeko. Egin beharreko instalazioak gutxienez baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Modulu domotiko bat instalatzea, lapurreten eta suteen kontrako segurtasun funtzioak beteko dituena, ur eta gas ihesen berri emanen duena eta urrutitik, telefono linea erabiliz erabil daitekeena.

b) Instalazioak, gutxienez, kontrol unitate bat izanen du, erabiltzailearen interfazearekin, bertatik kontrolatu ahal izateko sistemaren funtzionalitate desberdinak, bai eta detektagailuak, zundak, kableak, telefono hartuneak, konexioak eta funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren elementu guztiak.

c) Etxebizitza eraiki berrietako domotika instalazioek eraikuntza proiektuan aurreikusi beharko dute instalazioak ezgaitasunen bat duten pertsonen egokitzeko zaizkiela teknikaren nahiz zentzumenen ikuspuntutik.

2. Etxebizitza babestuen kasuan, dirulaguntza etxebizitzaren behin betiko kalifikazioa lortu ondoren ordainduko da, baina sustatzaileak zenbatekoaren erdia, gehienez ere, jaso ahal izanen du behin-behineko kalifikazioa lortu ondoren, eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoa estaltzeko adinako abala aurkezten badu.

3. Etxebizitza libreen kasuan, berriz, dirulaguntza etxebizitzaren bizigarritasun-zedula lortu ondoren ordainduko da osorik, sustatzaileak hura eskatu ondoren.

### 3. sekzioa

#### Errentamenduari eusteko laguntzak

**8. artikulua.** Errentamenduari eusteko laguntzak.

1. Araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzak errentan hartuak dituztenek, IPREMa halako 1,7 baino diru-sarrera txikiagoak izanez gero, dagozkien dirulaguntzak jaso ahal izanen dituzte, hilabete horietan sei hilabeteko errenta ordaindu gabe baldin badute, gehienez ere, azken hamabi hilabeteetan ordaindu gabe utzi zuten lehenbizikotik kontaktuta.

2. Errentariak ezin izanen dira aurreko idatzizatian xedatutakoaz berriz baliatu, harik eta, artikuluko honetan aurreikusitako laguntzarako eskubi-dea eragin zuen azken hilabete ordaindu gabetik urtebete, gutxienez, iragan arte, eta errentak ordainduta badituzte.

## II. KAPITULUA

### Aldi baterako neurriak

**9. artikulua.** Etxebizitza libreei babestuen kalifikazioa ematea eta babestutako etxebizitza mota aldatzea.

Foru lege honek indarra hartu aurretik Jabetzaren Erregistroan behar bezala inskribatutako birziriketa proiektuetan aurreikusita dauden edo amaituta dauden etxebizitzaren sustapen osatuei etxebizitza babestuen kalifikazioa eman ahalko zaie edo kalifikatuta dauden araubidea aldatu, lurzoruaren eta urbanizazioaren kostuak salmentarako gehieneko prezioan duen oihartzuna Nafarroako etxebizitzaren babes publikoari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legean aurreikusitako portzentajetik gorakoa izan arren, betiere arrazoitzen bada beharrezkoa dela etxebizitza horiek babestuen kalifikazioa izatea edo kalifikazioa aldatzea, exekuzioa zuzenekoa dela ziurtatzen bada eta betetzen badira alderdi hauetaz etxebizitza babestuaren araudi berariazkoan ezartzen diren baldintzak: azalera, diseinua, bizigarritasuna, xedea, erabilera, kalitatea eta gehieneko prezioa.

**10. artikulua.** Prezio mugatuko etxebizitza librea.

1. Etxebizitza berriak prezio mugatuko etxebizitza libreak izanen dira baldin eta haien gehieneko prezioa, lehen eskualdaketa, hau baino txikiagoa

bada, etxebizitza eta garajeko metro koadro erabilgarriko:

– 2.310 euro metro koadro erabilgarri bakoitzeko, honako udalerrri hauetan dauden etxebizitzaren kasuan: Iruña, Antsoain, Barañain, Beriain, Berribeiti, Berriozar, Burlata, Zizur, Uharte, Atarrabia, Galar, Oltza Zendea, Orkoién, Noain(Elortzibar), Aranguren, Egues, Ezkabarte, Zizur Nagusia, Oloki eta Arleta (Esteribar).

– 1.980 euro, Nafarroako gainerako herrietan dauden etxebizitzaren kasuan.

Beste eranskinetarako erabiltzen den metro koadro erabilgarriaren gehieneko prezioa ez da izan etxebizitza eta garajeetarako erabiltzen den metro koadro erabilgarriaren gehieneko prezioaren ehuneko 40tik gorakoa.

Prezio mugatuko etxebizitzaren eta haren eranskinen prezioak urtero berrikusiko dira 2010eko eta 2011ko Nafarroako aurrekontu orokorren foru legeetan, merkatuaren baldintzei jarraituz.

2. Planeamenduaren arabera salmenta libreko etxebizitzak eraikitzeke diren lurzatietan, Nafarroako Gobernuak etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuak eginbidetuko ditu prezio mugatuko etxebizitza libreen lehendabiziko eskualdaketak, honako baldintza hauek betetzen direla dokumentuen bidez egiaztatzen ondoren:

a) Etxebizitzak eskualdatu ahal izanzen dituzte Nafarroako etxebizitzaren babes publikoari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat sustatzaile izaera dutenek soilik.

b) Edozein kasutan ere, etxebizitzaren lehen eskualdaketa izan beharko da, sustatzaileak pertsona fisikoari egindakoa.

c) Salerosketaren kontratuan jasoko den etxebizitzaren amaierako prezioa, metro koadro erabilgarriko, eranskinak barne, ez da inolaz ere izan etxebizitzaren 1. idatz. zatian ezarritakoa baino handiagoa.

3. Etxebizitzaren sustatzaileak aurkeztu beharko du salerosketaren kontratua etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuan, eginbidetzeko.

4. Prezio mugatuko etxebizitza libreen erosleek mailegu kualifikatuak eskatu ahal izanzen dituzte, etxebizitza babestuen adjudikazio-hartzaileentzat aurreikusitako baldintzetan, administrazioak egiaztatzen ondoren erosketaren kontratuan jasotako prezioa ezarritako gehienekotik behera dagoela.

### III. KAPITULUA Behin betiko neurriak

**11. artikulua.** Babestutako etxebizitzaren erabilera aldatzea.

1. Etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuak baimendu ahal izanzen du, sustapen beraren barruan eta sustatzaileak eskatuta, behin betiko salerosketaren araubidearen kalifikazioa hartu duten etxebizitza babestu guztiak edo batzuk alokairuaren araubidean erabiltzea.

2. Salerosketaren araubidean kalifikatu behar diren etxebizitza babestuen sustapenetan, etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuak baimendu ahal izanzen du, sustatzaileak eskatuta, etxebizitzetako batzuk gordetzea alokairuan emateko.

**12. artikulua.** Etxebizitza babestua eskuratzeke gutxienezko baldintza batzuk betetzetik salbuestea.

1. Jendaurreko deialdia egin ondoren, eskatzailearen kopurua adjudikatu beharreko etxebizitza babestuen bakoitzeko txikiagoa den sustapenetan, etxebizitza guztien edo batzuen adjudikazioa eman gabe gelditzen denetik hiru hilabete iraganik, sustatzaileak eskatu ahal izanzen dio etxebizitzaren arloan departamentu eskudunari eskatzaileak gutxienezko diru-sarrerak frogatzeko betebeharetik salbuesteko, bai eta Nafarroako udalerrri batean errolatuta egoteko betebeharetik ere.

2. Halaber, 2011ko abenduaren 31era arte, etxebizitza guztien edo batzuen adjudikazioa eman gabe gelditzen denetik urte bat iraganik, sustatzaileak eskatu ahal izanzen dio etxebizitzaren arloan departamentu eskudunari eskatzaileak gehieneko diru-sarrerak frogatzeko betebeharetik salbuesteko.

3. Artikulu honetan xedatuari jarraituz etxebizitza bat erosten duten pertsonak ezin izanzen dute eskuratu etxebizitza babestua sustatzeko aurreikusten diren dirulaguntza orokorretarik bakar bat ere.

**13. artikulua.** Etxebizitza babestuko logela eta/edo eranskinak errentan ematea.

1. Etxebizitza babestuaren jabeek, ohiko bizileku iraunkorrerako erabiltzen segitzen badute, etxebizitza horretako logelak eman ahal izanzen dituzte errentan, banaka, betiere etxebizitzaren arloan eskumen aduen departamentuak errentamenduen kontratua aurkezten bada.

Logeletako bakoitza errentan emateko gehieneko prezioa ez da izan, inolaz ere, etxebizitza

osoa errentan emateko gehieneko prezioaren eta bertako logelen kopuruaren arteko zatidura baino handiagoa.

2. Era berean, babestutako etxebizitzaren jabeek eranskinak errentan eman edo saldu ahal izanen dituzte, banaka, Nafarroako Gobernuak urtero etxebizitza mota bakoitzerako ezartzen duen prezioa gairatu gabe, eta kontratua etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuan aurkeztu ondoren.

3. Bi kasuetan, errentan emateak edo saltzeak ez du ekarriko jasotako dirulaguntzak itzuli beharrik, eta ez da eskatuko errentariak edo eskuratzaileak etxebizitza babestua eskuratzeko gutxieneko baldintzak bete ditzan.

**14. artikulua.** Penalizazio klausulak, etxebizitza babestuen salerosketa-kontratuei edo jabetza adjudikatzekeoi uko egiteagatik.

1. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera ikus-onetsi administratiboa jasotzeko aurkeztzen diren kontratuek, etxebizitza babestuaren jabetza adjudikatzekeoi edo salerosketakoek, nahitaezko klausulak edukiko dituzte, erosleek horiei uko egiteko aukera arrazoitua izan dezaten; kasu horietan, gehieneko penalizazioa ezarriko da kontzeptu guztietan, 500 eurokoa lehen urtean, kontratua izenpetzen denetik hasita, eta 1.200 eurokoa bigarren urtetik aurrera.

2. Babestutako etxebizitza baten adjudikazioari erosleek uko egitearen ondorioz egin beharreko dirulaguntzen itzulketak ez du interesik sortuko.

**15. artikulua.** Errentamendurako sustapenetan eskatu beharreko abala.

Babes ofizialeko etxebizitzak errentan emateko kontratuetan, foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera izenpetzen direnetan, sustatzaileak, kasuan kasuko fidantzaren berme osagarri gisa, eskatu dezakeen bakarria bankuko abala da, sei hilabeteko errenta adinakoa gehienez ere araubide orokorreko etxebizitzaren kasuan, eta hiru hilabeteko errenta adinakoa gehienez ere araubide berezikoetan.

**16. artikulua.** Etxebizitzak errentan emateko sustapenetan araubidea aldatzea.

Araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan, prezio tasatuko etxebizitzetan eta errentan emateko prezio itunduko etxebizitzetan, behin-behineko nahiz behin betiko kalifikazioa azken hamar urteetan lortu baldin badute, etxebizitza guztiak edo batzuk araubide bereziari atxikitzea eskatu ahal izanen da, eta errentan emateko erabiliko dira araubide berezi horretarako ezarritako

ko modu eta baldintzetan, errentari horiek ere beste araubide horretakoentzat ezarritako dirulaguntzak jasotzeko aukera barne.

**17. artikulua.** Etxebizitzarako kontuaren antzinatasa aitortzea, baremoko puntuazioaren ondorioetarako.

1. Etxebizitza babestu bat eskuratzeko, etxebizitzarako aurrezteko kontuaren titularitatearen antzinatasa etenik ez izateko baldintza bete dela ulertuko da baldin eta eskatzaileak frogatzen badu kenkarirako eskubidea zekarren etxebizitzarako kontu baten titularitatea eduki duela, horretarako eskubidea sortzen zuen epea mugaegunera iristeagatik kontua itxita egon arren, betiere etxebizitzarako kontu berriak, kenkarirako eskubidea ematen duenak, aurrekoa itxi eta hiru hilabeteko epean ireki bada, gehienez ere.

2. Era berean, baldintza hori baldintza berberetan betetzen dela ulertuko da etxebizitzarako kontu baten titular izan eta bertan gordetako dirulaguntzak etxebizitza babestu bat erosteko erabili dituzten eskatzaileen kasuan, azkenik etxebizitza horren erosle bihurtu ez badira ere, arrazoiturik emandako ukoagatik edo haiei egotzi ezin zaizkien arrazoiengatik ikus-onetsia ukatu zaielako.

### III. TITULUA Zerga arloko neurriak

**18. artikulua.** Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik kenkaria, prezio libre mugatuko etxebizitza erosteko.

Ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginari hogeita hamahirugarren xedapen gehigarria gehitu zaio.

Hogeita Hamahirugarren xedapen gehigarria. Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik kenkaria, prezio libre mugatuko etxebizitza erosteko.

1. Ohiko etxebizitzaren inbertsioagatik kenkaria, Testu Bategin honen 62.1 artikuluan aurreikusitakoak, dituen ondorioetarako, prezio libre mugatuko etxebizitzaren kalifikazioa jasotzeko baldintzak betetzen dituen etxebizitzaren lehen erosleak zergaldian ordaindutako zenbatekoen kasuan, artikulua horren a) eta g) letretan ezarritako kenkarien portzentajeak ehuneko bost gehituko dira eta, beraz, 100eko 20koa, 100eko 23koa eta 100eko 35koa izanen dira, hurrenez hurren.

Ehuneko bost puntuko igoera hori soilik aplikatu ahal da etxebizitza erosten duenak ordainketa egiten duen lehen zergaldian eta zergaldi horren ondoko bederatzi zergaldietan.



2. Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak egiaztatuko du etxebizitzak prezio libre mugatuko etxebizitzaren kalifikazioa hartzeko baldintzak betetzen dituela eta, zehazki, sustatzaileak pertsona fisiko bati eginiko lehen etxebizitza-eskualdatzea dela.

3. Xedapen gehigarri honetan aurreikusitako kenkaria prezio libre mugatuko etxebizitzaren kalifikazioa duten etxebizitza libreetan aplikatuko da, baldin eta 2011ko abenduaren 31 baino lehen egin bada salerosketako kontratuaren administrazio-eginbidea.”

**19. artikulua.** Berrinbertsioaren epea luzatzea 2008an ohiko etxebizitza eskualdatzen den kasuan, betiere eskualdaketa hori ohiko etxebizitza izanen den beste bat erosi edo zaharberritzeko diru-kopuruak ordaindu ondoren egin bada.

Ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginari Hogeita Hamalagarren Xedapen Gehigarria gehitu zaio.

Hogeita hamalagarren xedapen gehigarria. Berrinbertsiorako epea luzatzea, 2008an ohiko etxebizitzaren eskualdaketa egiten denean.

Testu bategin honen hogeita hamaikagarren xedapen gehigarria aplikatzeko, 2008an ohiko etxebizitzaren eskualdaketa egin den kasurako, ohiko biziokia izanen den beste etxe bat erosi edo zaharberritzeko 2006an ordaindutako diru-kopuruak berrinbertitutako dirutzat hartuko dira, ohiko etxebizitza besterendu aurreko bi urtetik gorako epean ordaindu badira ere.

**20. artikulua.** Etxebizitzarako kontuetan gordetako diru-kopuruak, ohiko etxebizitza erosteko erabili ez direnak etxebizitzaren saltzaile edo sustatzailearekiko kontratua suntsitzeagatik.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategin honen 62.1.a) artikuluan ezarritako betebeharra, alegia etxebizitzarako kontuetan gordetako diru-kopuruak ohiko etxebizitza lehen aldiz erosi edo zaharberritzen erabiltzekoa, ez da betegabetzat joko baldin eta, etxebizitzaren salerosketako kontratua suntsitzen bada salbuespeneko arrazoiengatik, saltzaileak edo sustatzaileak subjektu pasiboari itzuli badizkio kontura emandako kopuruak, eta subjektu pasiboak etxebizitzarako zeukan kontuan edo, hura itxi badu, berri batean berriz sartu baditu.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak zehaztuko du zein diren salerosketaren kontratua suntsitzea eragin dezaketen salbuespenezko arrazoiak, horrek ekarri gabe betebeharra ez betetzea, eta,

halaber, etxebizitzaren saltzaileak edo sustatzaileak itzultitako kopuruak etxebizitzarako kontuan berriz sartzeko baldintzak eta arrazoi eta baldintza horiek frogatzeko modua ere bai.

**21. artikulua.** Etxebizitza kontuaren epea zabaltzea.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Erregelamenduko 53. artikuluan ezarritako epea, bera iraungitzearekin ohiko etxebizitzarako inbertsioagatik kenkaria izateko eskubidearen galera dakarrena, hamar urtekoa izanen da.

Epe horren aplikazioak eragina izanen du 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera ireki diren etxebizitza-kontuetan sartutako diru kopuruen gainean.

Etorkizunean, Nafarroako Gobernuak erregelamendu mailako arauen bidez erregulatzen ahalko du gai hau.

2008ko abenduaren 31n 53. artikuluan aipaturiko zortzi urteko epea iragan bada eta etxebizitza-kontuaren jabeak 2008ko urtarrilaren 1etik hasi eta foru lege honek indarra hartu arte kontutik diru-zenbateko batzuk erabili baditu ohiko etxebizitza lehen aldiz erostea edo zaharberritzea ez diren beste xede batzuetarako, epea hamar urteraino zabaldu ahal izateko aurrena data horietan erabilitako zenbatekoak itzuli beharko ditu, etxebizitza-kontu zaharrean edo, aurrekoa deuseztatu baldin badu, beste etxebizitza-kontu batean. Diru-itzulketari hori foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean gauzatu beharko da.

Itzulketa etxebizitza-kontu berri batean gauzatu bada, aurreko etxebizitza-kontua deuseztatu delako, joko da etxebizitza-kontu berria aurrekoa ireki zen data berean ireki dela.

**22. artikulua.** Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik kenkaria, babesturiko etxebizitza kalifikatuak erosteko, babes ofizialekoak nahiz prezio tasatukoak izan.

Babes ofizialekotzat nahiz prezio tasatukotzat kalifikaturiko etxebizitzetan aplikatuko da, haien salerosketa kontratuak modu administratiboan bisatu badira foru lege honek indarra hartzen duenetik 2011ko abenduaren 31ra bitartean. Ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legeko Testu Bateginari hogeita hamalagarren xedapen gehigarria gehituko zaio, honako testuarekin.

Hogeita hamalagarren xedapen gehigarria. Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik kenkaria, babesturiko etxebizitza kalifikatuak erosteko, babes ofizialekoak nahiz prezio tasatukoak izan.

1. Ohiko etxebizitzaren inbertsioagatikoen kenkariak, Testu Bategin honen 62.1 artikuluan aurreikusitakoak, dituen ondorioetarako, babes ofizialeko edo prezio tasatuko etxebizitzaren kalifikazioa jasotzeko baldintzak betetzen dituen etxebizitzaren erosleak zergaldian ordaindutako zenbatekoen kasuan, artikuluko horren a) eta g) letretan ezarritako kenkariaren portzentajeak ehuneko bost gehituko dira eta, beraz, 100eko 20koa, 100eko 23koa eta 100eko 35koa izanen dira, hurrenez hurren.

Ehuneko bost puntuko igoera hori soilik aplikatu ahalko da etxebizitza erosten duenak ordainketa egiten duen lehen zergaldian eta zergaldi horren ondoko bederatzi zergaldietan.

2. Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak egiaztatuko du etxebizitzak babes ofizialeko nahiz prezio tasatuko etxebizitzaren kalifikazioa edukitzeko baldintzak betetzen dituela.

**23. artikulua.** Ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko hogeita zortzigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

Hona Ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko hogeita zortzigarren xedapen gehigarriaren testu berria:

Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria. Etxebizitzak Zaharberritzearen eta Eraginkortasun Energetikoari buruzko Plan berezia.

1. Ohiko etxebizitza zaharberritzeagatik zergaldian ordaindutako zenbatekoek ondoko tratamendua izanen dute ohiko etxebizitzako inbertsioagatikoen kenkariaren kuotan pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, testu bategin honetako 62. artikuluan ezarritako eran, baldin eta bizileku eta hiri ondarea zaharberritzeari buruz legeak eskatutako baldintzak betetzen baditu eta hori dena Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak emandako ziurtagiri bidez frogatzen bada:

Oro har, testu bategin honetako 62.1 artikuluko a) eta g) letretan ezarritako kenkariaren ehunekoak % 3 igoko dira, eta, hurrenez hurren, % 18koa, % 21koa eta % 33koa izatera pasatuko dira.

Zaharberritzeko obrak energia-efizientzia hobetzeko neurriak jasotzen baldin baditu, testu bategin honetako 62.1 artikuluko a) eta g) letretan ezarritako kenkaria ehuneko bost igoko da, eta, hurrenez

hurren, % 20koa, % 23koa eta % 35koa izatera pasatuko da.

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak egiaztatuko du, etxebizitzaren zaharberritze babestuko espedienteen kalifikaziozedulen bidez, obra horiek 2009tik 2011ra bitarte, biak barne, hasi izana, bai eta obra horiek energia-efizientziako neurriak jasotzen badituzte ere. Hasitako obratzat hartuko dira zaharberritze babestuko behin-behineko kalifikazioa 2009-01-01etik 2011-12-31ra bitarte eskatu eta eman den obrak. Erregelamendu bidez ezarri ahalko da, sektoreko araudi berariazkoan ezarri ere, zaharberritze obrek noiz jasotzen duten energia-efizientzia hobetzea.

2. Kenkari hori ez zaie aplikatuko etxebizitzak barrutik berritzeko aparteko dirulaguntzak dituzten obrei; dirulaguntza horiek Etxebizitzaren arloko jarduketara babesgarriak eta etxebizitzetarako eraikinen sustapena arautzen dituen urtarilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuko 87 bis artikuluan jasotzen dira hain zuzen ere.

#### IV. TITULUA

##### Nafarroako Etxebizitzak S.A. (Vinsa)

**24. artikulua.** Nafarroako Etxebizitzak S.A. (Vinsa)

1. 2009-2011 aldian, Vinsaren jarduera gehienbat hauetara bideratuko da:

– Zaharberritzeko eta hiri erreformarako ekin-tzak.

– Alokairuaren araubideko etxebizitza babesturen sustapena.

2. Aldi horretan, halaber, Vinsak bere gainerako helburuak bermatzeko –batez ere Alokairuko Sistema Publikoaren sustapena- behar duen neurrian baizik ez du sustatuko salerosketaren araubideko etxebizitza babestua, eta betiere sustatuko etxebizitza babestuen 100eko 15 gaintitu gabe.

**Lehenbiziko xedapen gehigarria.** Foru lege honek indarra hartu ondoren tramitatzen diren plan aldaketak.

Foru lege honek indarra hartu ondoren tramitatzen diren plan aldaketek bete beharko dituzte, gutxienez ere, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 53. artikuluan, foru lege honetan onetsitako testuan, ekipamendu eta zerbitzuetarako eremuei buruz ezarritako zehaztapenak, eta horretarako erreferentziatzat hartuko dute osorik aldatu nahi den sektore edo unitatea.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Berandutza interesak.

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 50.2.c) artikuluan aipatzen den berandutza korrituaren tasa, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera, 100eko 5 izanen da.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Zaharberritze babestuko araubideko etxebizitzak.

2011ko abenduaren 31 arte, etxebizitzan zaharberritze babestuaren araubideko jarduketak eta haiei legozkiekeen laguntza ekonomikoak jaso asmoz, eraikinak edo etxebizitzak 12 urte edo gehiago izan behar ditu.

**Laugarren xedapen gehigarria.** Zaharberritzeko laguntzak Pirinio alderako.

Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikoan sarturiko udalen batean dauden eta eraikitzen bukatu zirenetik 50 urte baino gehiago dituzten etxebizitza-eraikinen zaharberritze-jardueretarako, Nafarroako Gobernuari dagokion neurrian, lehen-tasunez zaharberritu beharreko eremu deklaratu-takoetan zaharberritze babestuko jardueretarako arauetan ezartzen diren laguntza ekonomikoak emanen dira.

**Lehen xedapen iragankorra.** Eraikigarritasuna handitzea eragiten duten planeamendu aldaketek bete beharreko baldintzak.

1. 35/2002 Foru Legeak indarra zuelarik izapidetutako planei dagozkien sektore edo unitateetan, edo foru lege honek indarra hartzean banaketa parekaturako proiektuak behin betikoz onetsita dituzten sektore edo unitateen kasuan, eraikigarritasuna handitzea dakarten aldaketak onetsi ahalko dira –baldin eta etxebizitzetarako garapenari lotutako azpiegiturak eta zerbitzuak oztopo ez badira aldaketa horietarako, eta handitzea, gehienez ere 100eko 30ekoa bada-, horien zehaztapenak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 53. artikuluan jasotako estandarretara egokitzeko beharrik gabe, betiere baldintza hauek betetzen badira:

a) Aldaketaren esparrua sektore edo unitate osoa izatea.

b) Hirigintza aprobetxamendu homogeneizatuaren gehikuntzarik ez eragitea, ez eta erabilitako homogeneizazio koefizienteen aldaketarik ere.

c) Foru lege honek indarra hartu eta hurrengo hiru hilabeteetan aurkeztea onesteko.

d) Proposatutako eraikigarritasun gehikuntzaren 100eko 80, gutxienez, etxebizitza babestuak eraikitzeke erabiltzea.

2. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeak indarra zuelarik onetsitako planei dagozkien sektore edo unitateetan, ondoren ez badute bere egin gutxienez 100eko 50 babes ofizialeko etxebizitzarako erabiltzeko aurreikuspena, eraikigarritasuna handitzea -gehienez ere 100eko 15ekoa- dakarten aldaketak onetsi ahalko dira, horien zehaztapenak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 53. artikuluan jasotako estandarretara egokitzeko beharrik gabe, betiere baldintza hauek betetzen badira:

a) Aldaketaren esparrua sektore edo unitate osoa izatea.

b) Hirigintza aprobetxamendu homogeneizatuaren gehikuntzarik ez eragitea, ez eta erabilitako homogeneizazio koefizienteen aldaketarik ere.

c) Foru lege honek indarra hartu eta hurrengo hiru hilabeteetan aurkeztea onesteko.

d) Proposatutako eraikigarritasunaren gehikuntza etxebizitza babestuak eraikitzeke erabiltzea, aldatu beharreko unitatean edo sektorean aurreikusitakoa adinakoa den portzentajea, gutxienez.

3. Xedapen honetan aurreikusitako aldaketak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 74. artikuluan eta, dagokion kasuan, 45.5 artikuluan ezarritakoari jarraikiz tramitatuko dira. Nolanahi ere, aldaketaren espedienteak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 70.8 artikuluan, foru lege honen bidez emandako testuan, aipatzen diren txosten sektorialak eduki beharko ditu 15 egun naturaleko epean; epe hori eman gabe iraganik, txostena proposatutako aldaketaren aldekoa dela ulertuko da.

**Bigarren xedapen iragankorra.** Zenbait laguntzaren aldi baterako indarra.

1. Foru lege honen II. tituluko I. kapituluaren aurreikusitako laguntzak behin-behineko kalifikaziorako eskaera foru lege honek indarra hartu ondoren eta 2011ko abenduaren 31ra arte aurkezten duten obra eta jarduketetan aplikatuko dira. Ez dute inola ere foru lege honetan xedatutakoaz balizkerik izanen behin-behineko kalifikatutako obra edo jarduketak edo Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 191.2.d) artikuluan aurreikusitako txostena foru lege honek indarra hartu aurretik eskuratu dutenak.

2. Foru lege honen II. tituluko II. kapituluaren aurreikusitako neurriak 2011ko abenduaren 31ra arte aplikatuko dira.

**Hirugarren xedapen iragankorra.** Foru lege honek indarra hartzean izapidetzen ari diren planeamenduak.

Planeamenduaren berrazterketak edo aldaketak, bai eta foru lege honek indarra hartzeko unean Lurraldearen Antolamenduari eta Etxebizitzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Legearen ezarritakoaren arabera garatzen ari ziren tresnak, foru lege honen indarra hartu aurretik xedatutakoaren arabera izapidetzen jarraitu ahalko dira.

**Azken xedapenetako lehena.** Nafarroako Gobernuari ahalmena ematea.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau aplikatu eta garatzeko behar diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra eta ordutik aurrera izanen ditu ondorioak.



---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Legea, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen 100eko 0,7 arautzekoa.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2009ko maitzaren 28an egindako Osoko Bilkuran, Foru Legea, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen 100eko 0,7 arautzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2009ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Foru Legea, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen 100eko 0,7 arautzekoa**

**ZIOEN AZALPENA**

Herritarrek hartutako erabakiekiko errespetuak eta erabaki horiek gauzatzeko modu zehatz eta berekiekiko errespetuak eskatzen du funts hori bereziki arautzea; alegia, definitu beharra dago zer diren foru erkidegoan "gizarte-intereseko beste xede batzuk", zehaztu beharra dago zertarako erabiltzen den 100eko 0,7 horretan sartzeko diruaren azken destinoa, ezarri eta lehenetsi behar dira jarduerak eta jardueren hartzailak, eta bide eman behar zaio Nafarroako Foru Komunitateko GKE-en eta irabazi asmorik gabeko entitateen parte-hartzeari eta inplikazioari.

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren araubide komunaren esparruan, Espainiako Gobernuak urtero banatzen du errenta aitortpenan Eliza Katolikoarentzat eta "gizarte-intereseko beste xede batzuetarako" bildutakoa. Azken kontzeptu hori GKE-ei itzultzen zaie, kasuan kasuko deialdiak eginez laguntza-programak, lankidetzaprogramak edo/eta ingurumena hobetzeko programak egiteko dirulaguntzak banatzeko.

Nafarroako Foru Komunitateak zerga-araubide berekia duenez gero, Nafarroako GKE-ek eta elkarteek ezin dute parte hartu Espainiako Gobernuak tributu-dirusarrera horien kargura egiten dituen deialdietan. Alegia, Nafarroako GKEak, azaldu-tako arrazoi begi-bistakoak direla-eta, deialdi horietatik kanpo gelditzen dira, zergadun nafarrek ez dituztelako nazioko funts horiek elikatu bere 100eko 0,7aren bidez.

Gauza ezaguna da, orobat, Nafarroako Foru Komunitatean lan egiten duten GKE-en ondoko eskaria: ahal den neurrian argitzea zer destino izanen duen zergadun nafarrek, bere borondatez, urtero-urtero hautatzen duten "gizarte-intereseko beste xede batzuk" izeneko laukitxoaren bidez bildutakoak.

Foru lege honek orobat zehazten du zer diren Foru Komunitatearen esparruan "gizarte-intereseko beste xede batzuk", eta unean uneko gizarte-errealitatearen beharrizan aldakorrei egokitzeko tresna bat jasotzen du.

Lau jarduera-multzo ezarrita, aintzatetsi eta artatu nahi dira GKE-en eta irabazi asmorik gabeko entitateen ohiko jarduera eremuak, ondokoak hain zuzen ere: beharrizan-egoeren aurreko gizarte-elkartasuneko jarduerak (hainbat talde xede dituzten programak eta proiektuak: drogazaleak, gizarteak baztertutakoak, guraso bakarreko familiak, babesgabetasun egoeran dauden adingabeak, tratatu txarrak jasotzen dituzten emakumeak, gutxiengo etnikoak, presoak, preso ohiak, pasadizokoak, zaharrak, ezgaitasun fisiko, psikiko edo sensorialak dituztenak eta lanerako ezgaituta daudenak), natur ingurunea eta biodibertsitatea babesteko programak, natur baliabideen erabilera iraunkorra eta kutsadurari eta klima-aldaketari aurrea hartzea.

Eta horiekin batera, gizarte-intereseko beste xede batzuk sartzeko dira aldi baterako, hala nola zailtasun ekonomikoko nazioarteko egungo egoe-

ran langabetuei laguntzea eta, ongizatearen estatuaren zutabe berri bat sortzeko tresna den aldetik, Autonomia Pertsonalari buruzko Legea abian jarri eta hasiera batean garatzea.

**1. artikulua.** PFEZaren aitortpena egitean “gizarte-intereseko beste xede batzuk” hautatu duten zergadunen kuota osoen baturari 100eko 0,7 aplikatzen heldu den zenbatekoak berriazko atxikipena izanen duen kontusail bat osatuko du urte bakoitzeko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, ‘gizarte-intereseko beste xede batzuetarako 100eko 0,7ko funtsa’ izenekoa.

**2. artikulua.** “Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako 100eko 0,7ko funtsa” kontusaileko dirua soilik erabili ahal da finantzatzeko Nafarroako GKE-ek eta elkarteek laguntza-xedeetara, nazioarteko garapenerako lankidetzara, prestaziorik gabeko langabetuei laguntzera eta Autonomia Pertsonalari buruzko Legea garatu eta babesteko jardueretara –estatuaren ekarpenen bidez finantzatzen ez direnetara– bideratutako lana.

**3. artikulua.** “Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako 100eko 0,7ko funtsa” kontusaila, zehazki, aurreko artikuluan emandako irizpideen arabera banatuko da lehentasunez, ondoko taldeekin bat:

1. Beharrezko egoeren aurrean egiten diren gizarte-elkartasuneko jarduerak, hala nola horrelako egoeretarako proiektuak eta programak, xede dituztenak drogazaleak, gizarteak baztertutakoak, guraso bakarreko familiak, Espainiako naziokotasuna duten adingabeak, babesgabetasun egoeran dauden adingabeak, bakarrik dauden adingabe atzeritarrak, tratu txarrak jaso dituzten emakumeak, gutxiengo etnikoak, presoak, preso ohiak eta pasadizokoak, bai eta zaharrak, ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentzorialak dituztenak eta lanerako ezgaituta daudenak ere, baldin eta laugarren multzoan jasota ez badaude.

2. Prestaziorik gabeko langabetuentzako laguntza.

3. Garapenerako nazioarteko lankidetzara, herrialde azpigaratuak biztanle behartsuenen aldekoa, bereziki gatazka belikoa bizi duten edo pairatu duten herrialdeetan edo hondamendi naturalek larriki kaltetutako herrialdeen garapenerako lankidetzara.

4. Autonomia Pertsonalari buruzko Legea garatzeko laguntza.

5. Natur ingurunea eta biodibertsitatea babesteko programak, natur baliabideen erabilera iraunkorra eta kutsadurari eta klima-aldaketari aurrea hartzea.

**4. artikulua.** Berriazko kontusaileko ‘Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako 100eko 0,7ko funtsa’ honela banatuko da: 1. multzoari 100eko 35; 3. multzoari 100eko 30; 2. eta 4. multzoei 100eko 15, eta 5. multzoari 100eko 5.

**5. artikulua.** Nafarroako Gobernuak aurreko artikuluetan aipatutako taldeetako bakoitzaren ehunekoak aplikatzen heldu den zenbatekotik gora bideratu ahal du, bost taldeetarako ateratzen den zenbatekoa murriztu gabe.

**6. artikulua.** 1. Hirugarren artikuluko 2. eta 4. jarduera-multzoei hiru eta bost urteko indarraldia izanen dute hurrenez hurren; izan ere, horien xedea da egoera ekonomikoaren arabera laguntza ematea eta Autonomia Pertsonalari buruzko Legea abian jartzea eta hasiera batean garatzea.

2. Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak zuzenean garatu ahal ditu 2. eta 4. multzoen berezko jarduerak, osorik nahiz hein batean, baldin eta ez badago GKE-en eta irabazi asmorik gabeko entitateen behar adina proposamen edo aurkeztutako programek eta proposamenek ez badituzte biltzen helburuak lortzeko beharrezkoak diren pisua eta ezaugarri teknikoak.

**7. artikulua.** Nafarroako Gobernuak jarduera-multzo bakoitzari buruzko deialdia egiten du, urte bakoitzeko aurrekontuen legeak indarra hartu ondoko hogeita hamar eguneko epean gehienez ere, edo aurreko aurrekontuak luzatutzat ematen diren egunetik, kasua bada, Gizarte Ongizateko, Garapenerako Lankidetzako eta Ingurumeneko Nafarroako kontseiluek irizpena eman ondoren; irizpen horretan, Nafarroako Gobernuak ahal den adostasun handiena lortzea bilatuko du. Halaber, PFEZaren kanpainetan zehar, zergadunentzako behar adina informazio emanen da laukitxoak markatzeko dauden aukerei buruz, bai eta foru lege horren bidez finantzatzen diren programei buruz ere.

**Lehenengo xedapen gehigarria.** Nafarroako Gobernuak aurreko ekitaldiko “gizarte-intereseko beste xede batzuetarako 100eko 0,7ko funtsaren” betetzea ebaluatzeko atal bat sartuko du aurrekontuen lege proiektuen oroitidazkietan, bai eta hurrengo ekitaldiari buruzko aurreikuspena ere, eta horiekin batera emanen ditu bildutakoaren zenbatekoa, “gizarte-intereseko beste xede batzuk” atalari dagokion 100eko 0,7 aplikatzen heldu den zenbatekoa eta hurrengo ekitaldiari buruzko aurreikuspenak.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Seigarren artikuluan aipatzen diren 3 eta 5 urteko epeak bukatutakoan, horien ehunekoak proportzioan gehituko zaizkie gainontzeko taldeei, non eta ez diren talde

horien ordezeko beste jarduera talde batzuk sortzen lege aldaketa baten bidez, edo oraingoak luzatzen.

**Xedapen iragankor bakarra.** Zergadunek 2009ko errentaren kanpainan "gizarte-intereseko beste xede batzuetara" bideratzen duten 100eko 0,7 aplikatetik heldu den zenbatekoa, 2010ean,

"Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako 100eko 0,7ko funtsa" taxutzeko eta kudeatzeko aplikatuko da.

**Azken xedapena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

## **Foru Lege proposamena, izaera sozialeko entitateentzat kontratu publikoak erreserbatzeari buruzkoa.**

### *OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA*

Legebiltzarrak, 2009ko maiatzaren 28an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako izaera sozialeko entitateentzat kontratu publikoak erreserbatzeari buruzko Foru Lege proposamena.

Proposamen hori 2009ko apirilaren 17ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---



---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da errespetatzen eta errespetarazi diezaien udalei liburutegi publikoak kudeatzeko autonomia.**

**OSOKO BILKURAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko maiatzaren 28an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da errespetatzen eta errespetarazi diezaien udalei liburutegi publikoak kudeatzeko autonomia".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da errespetatzen eta errespetarazi diezaien udalei liburutegi publikoak kudeatzeko autonomia**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Errespetatzen dezan eta udalei errespetarazi diezaien liburuzainek liburutegi publikoak kudeatzeko autonomia, eta ziurta dezan haiena izanen dela liburutegiaren zuzendaritza teknikoa eta zerbitzu- en eta baliabideen kudeaketa.

2. Ziurta dezan liburuzainek kudeatzen dituzten funts dokumentalek aniztasun kulturala eta ideologikoa islatuko dutela.

3. Ziurta dezan informazioa, jakintza eta kultura libreki eskuratu ahalko dela.

4. Ziurta dezan informazioaren gizarte demokratiko, ireki eta gardena eraikitze modua izanen dela.

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pertsonen eta Familiari Babesa Emateko Foru Programa bat susta dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko maiatzaren 28an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pertsonen eta Familiari Babesa Emateko Foru Programa bat susta dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pertsonen eta Familiari Babesa Emateko Foru Programa bat susta dezan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, gizarte eragileekin bat, krisiaren aurrean Pertsonak eta Familiak Babesteko Foru Programa bat abiaraz dezan, zeinaren bidez bilatuko baita laguntza ekonomikoa ziurtatzea dirusarrerarik gabeko langileei eta familiei eta prestakuntza ematea pertsona horiei produkzio-eredu berriaren esparruan laneratzea lortzeko.

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2008ko baldintza eta diru kopuru bera balia dezan etorkizunean ere, beharrezkoak diren eguneratzeekin, hiru urtetik behereko seme-alabak dituzten emakumezko langileendako laguntzetarako.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko maiatzaren 29an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2008ko baldintza eta diru kopuru bera balia dezan etorkizunean ere, beharrezkoak diren eguneratzeekin, hiru urtetik behereko seme-alabak dituzten emakumezko langileendako laguntzetarako". Horren jatorria da Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako mozio bat, 2009ko apirilaren 17ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2008ko baldintza eta diru kopuru bera balia dezan etorkizunean ere, beharrezkoak diren eguneratzeekin, hiru urtetik behereko seme-alabak dituzten emakumezko langileendako laguntzetarako**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du iragan urteko baldintza eta diru kopuru bera balia dezan etorkizunean, beharrezkoak diren familia-errentaren eguneratzeekin, hiru urtetik behereko seme-alabak dituzten emakumezko langileendako laguntzetarako.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin dezan martxoaren 11ko 100/2009 Foru Aginduaren bidez onetsi zen hiru urtetik behereko seme-alabak dituzten emakumezko langileendako laguntzen deialdiari dagokion amai-erako ebazpenaren balorazio zehatza, ezagutze aldera errentaren mugak jaistearren eragina, bereziki familia-errentaren muga gaintitzeagatik atzera botatuko balizko jasotzaile kopuruari dagokionez.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beste azterketa bat egin dezan ezagutzeko Nafarroako familiei ematen zaizkien dirulaguntza zuzenek eta, bereziki, hiru urtetik beheko seme-alabak dituzten emakumezko langileei ematen zaien laguntzak eragiten duten gogobetetasun-maila, heldu den ekitaldi ekonomikoan

beharrezkoak diren erabakiak hartze aldera, batez ere aurrekontuen arloan, hitzartutako balorazioen eta azterketen arabera. Horretarako, aurtengo urrian Nafarroako Parlamentuari jakinaraziko zaizkio aipatu balorazio eta azterketetatik ateratako datu eta irizpideak.

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresetako lehiakortasunari eta hobekuntzari buruzko azterlan bat egin dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko maiatzaren 28an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresetako lehiakortasunari eta hobekuntzari buruzko azterlan bat egin dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresetako lehiakortasunari eta hobekuntzari buruzko azterlan bat egin dezan**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan hautemateko eta identifikatzeko zer enpresa-elkarte era daitezkeen gure enpresen lehiakortasuna hobetze aldera, edozein sektoretan jarduten dutela ere, bai eta enpresa horien esportazio nahiz elkarren arteko lankidetzak aukerak hobetze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, balizko enpresa-elkarte edo klusterrak hautemateko eta identifikatzeko azterlan bat egin ondoren, jarrera proaktiboa izan dezan enpresen bultzada eta sutapenari dagokienez, gure enpresen eta horietako langileen lehiakortasuna hobetu eta beren etorkizuna ziurtatze aldera.

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ingurumen laguntzak kudeatzeko prozeduraren gabeziak konpon ditzan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko maiatzaren 28an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ingurumen laguntzak kudeatzeko prozeduraren gabeziak konpon ditzan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ingurumen laguntzak kudeatzeko prozeduraren gabeziak konpon ditzan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua, eta, zehazki, Landa Garapenerako eta Ingurumenerako Departamentua, premiatzen du ingurumen laguntzak kudeatzeko prozeduraren gabeziak konpon ditzan, ondoko irizpideak kontuan hartuta:

1.- Eskaerak onartzea eta horiek betetzat jotzea, betiere eskatzaileak bere esku dauden zuzemen guztiak egin baditu, eta ez hartzea akats gisa, epeari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren esku dauden prozedurak, baldin eta administrazioak ez badu epe arauemailean ebatzi.

2.- Erantzutea proiektua onartu den ala ez gehienez ere hiru hilabeteko epean, halako moduz non onuradunak, egokitzen jotzen badu, bankuentitateekin negoziatu ahalko baitu zubi-kredituen edo edonolako finantzaketaren izapidetzea.

3.- Administrazioak dirulaguntza onetsi eta gehienez ere hilabeteko epean egitea lanak hasteko baimena eman aurretiko kontrolak, kontuan hartuta lanak hasteko beharrezkoa dela kontrol horiek gainditu izana.

4.- Espediente guztiei erantzutea. Gaur egun, behin aurrekontua amaituta, gainerako espedientei ez zaie erantzuten. Kasu guztietan erantzuten da, jakinarazpen edo onespenez horrekin –hurrengo aurrekontuetan sartuko da– bankura joan ahal izateko aurrefinantzaketa eskatzera.

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren jarduera juridikoak abian jar ditzan Carlos III Osasun Institutuari atxikia egonen den osasunaren arloko ikerketa institutu kreditatu bat sortze aldera.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko maiatzaren 29an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren jarduera juridikoak abian jar ditzan Carlos III Osasun Institutuari atxikia egonen den osasunaren arloko ikerketa institutu kreditatu bat sortze aldera." Horren jatorria da Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztuta-

ko mozio bat, 2009ko apirilaren 17ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren jarduera juridikoak abian jar ditzan Carlos III Osasun Institutuari atxikia egonen den osasunaren arloko ikerketa institutu kreditatu bat sortze aldera**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Osasun Arloko Ikerketarako

Institutuen Egiaztagiriari buruzko otsailaren 27ko 339/2004 Errege Dekretuan xedatutako helburu eta printzipioei jarraikiz, Nafarroako ospitale publikoek eta eraikitze-, sortze- eta antolatze-prozesuan dagoen Nafarroako Ikerketa Biomedikorako Zentroak beharrezkoak diren lotura juridikoak ezar ditzaten Carlos III.a Osasun Institutuari atxikia egonen den osasunaren arloko ikerketa institutu kreditatu bat sortzeko, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen 48. artikulua araberan.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarearekin lankidetzan, Erosketa Sozial eta Solidarioaren Bulegoa.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko maiatzaren 29an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarearekin lankidetzan, Erosketa Sozial eta Solidarioaren Bulegoa". Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2009ko maiatzaren 6ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarearekin lankidetzan, Erosketa Sozial eta Solidarioaren Bulegoa**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du elkertasunezko ekonomiaren eta ekonomia jasangarriaren esparruko balioak eta praktikak sar ditzan erabakiak hartzeko duen administrazio-funtzionamenduan eta, hala, hobetu ditzan kontratazio publikoko prozesuei buruzko informazio-, kontzientziazio- eta kudeaketa-dinamikak, kontratu erreserbak eta klausula sozialak ezartzea erraztu eta arinduko duten neurriak sustatzeko eta erosketa publiko jasangarriari buruz sentsibilizatzeko baliagarriak diren ekintzak abian jartzeko, eta hobetu dezan elkertasunezko ekonomiaren eta hirugarren sektorea deiturikoaren gaitasuna eta profesionalizazioa, eta, horrekin lotuta, azter dezan politika horiek koordinatzeko bulego bat jartzeko aukera.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legearen erregelamenduak eta aginduak gara ditzan.**

*FAMILIA, GAZTERIA, KIROL ETA GIZARTE GAIETARAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak, 2009ko ekainaren 3an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legearen erregelamenduak eta aginduak gara ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legearen erregelamenduak eta aginduak gara ditzan**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hilabeteko epean presta ditzan Eskubide Sozialen Gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legean aipaturiko erregelamendu eta agindu guztiak.

2. Nafarroako Parlamentuak Gizarte Gaietako Departamentua premiatzen du ahalik eta malgutasun handienarekin interpreta dezan Eskubide Sozialen Gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea, gaur egungo egoera ekonomiko eta sozialari ahalik era erantzun egokiena emate aldera.

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte-enplegu babestua prestazio bermatutzat har dezan.**

*FAMILIA, GAZTERIA, KIROL ETA GIZARTE GAIETARAKO BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte-enplegu babestua prestazio bermatutzat har dezan".

Legebiltzarreko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak 2009ko ekainaren

3an egindako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko maiatzaren 15eko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da azaroaren 15eko 35/2007 Legea aldatzeko lege proiektu bat aurkez dezan.***OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da azaroaren 15eko 35/2007 Legea aldatzeko lege proiektu bat aurkez dezan"

Legebiltzarrak 2009ko maiatzaren 28an egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko martxoaren 31ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ADSL-banda zabala baldintzarik onenetan izan ahal izateko zenbait neurri har ditzan.***OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ADSL-banda zabala baldintzarik onenetan izan ahal izateko zenbait neurri har ditzan"

Legebiltzarrak 2009ko maiatzaren 28an egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko martxoaren 31ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da paperik gabeko etorkinen aurkako sarekada selektiboen aurka azal dadin.***OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da paperik gabeko etorkinen aurkako sarekada selektiboen aurka azal dadin"

Legebiltzarrak 2009ko maiatzaren 29an egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko apirilaren 24ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Juan Ramón Corpas Mauleónen jardun politikoa gaitzesten du, eta premiatzen du Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilari gisa dagozkion eginkizunak bete ditzan.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Juan Ramón Corpas Mauleónen jardun politikoa gaitzesten du, eta premiatzen du Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilari gisa dagozkion eginkizunak bete ditzan”.

Legebiltzarrak 2009ko maiatzaren 29an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko apirilaren 24ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxebizitza hutsen inbentario-erregistroa egin dezan.**

*MOZIOA ERRETIRATZEA*

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2009ko maiatzaren 29an egindako bileran, erabaki zuen Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldek aurkezturiko ondoko mozioa erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxebizitza hutsen inbentario-erregistroa egin dezan”.

Mozio hori 2009ko maiatzaren 6ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Larrialdietako Agentzia, Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetakoko Ministerioa eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa premiatzen dira Agoizko Udalak 2008ko irailaren 4an hartutako erabakiaren bidez eskatutako agiriak eta txostenak eman ditzaten.**

*LANDA GARAPENERAKO ETA INGURUMENENKO BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Larrialdietako Agentzia, Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetakoko Ministerioa eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa premiatzen dira Agoizko Udalak 2008ko irailaren 4an hartutako erabakiaren bidez eskatutako agiriak eta txostenak eman ditzaten”.

Legebiltzarreko Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeak 2009ko maiatzaren 28an egindako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko maiatzaren 22ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda